

ALE BEREZIA



# ARGIA



## *Ez gure izenean*

ISRAELEN GENOZIDIOA PALESTINAN

***“Mendebaldetik Palestinako ezkerre lagun dezakegu, baina ezin dugu ezer inposatu”***

16 | JALDIA ABUBAKRA

***Konponbidea: bi estatu ala bakarra baina demokratikoa?***

24 | ERREPORTAJEA

***Bai, egin dezakegu zerbait: Israeli boikota***

40 | ERREPORTAJEA



# Nork kontatzen dizu mundua?



FREPIK / @WUJIBURAHMAN906030

Babestu kazetaritza independentea

 ARGIA

# Ez gure izenean

**A**RGIAren aldizkari berezia duzu esku artean. Egoera ere halakoa delako. Gure etxeko patxadan ia zuzenean ari gara ikusten genozidio bat nola egiten ari diren. Uneotan, zigor gabe eta normaltasunez. Euskal Herriko eta Europako gobernuak eta haien menpeko hedabideak "Israelen defendatzeko eskubidearen" izenean herri oso baten aurkako eraso zuritzen ari dira. ARGIA osatzen dugunok ahotsa altxatzeko beharra sentitu dugu. Ez dugu horren konplize izan nahi.

Herritarrek Palestinan gertatzen ari denaz jabetzeko eta ulertzeko, ardua handia dugu kazetariok. Eta tamaina honetako sarraskiaren aurrean ez diogu gure erantzukizun profesional eta etikoari uko egin nahi. Hainbatetan esan dugu: ez gara neutralak. Nola izan neutralak genozidio baten aurrean? Horregatik sortu dugu zenbaki monografiko hau, mundu osoaren zimenduak eta lotsak astintzen ari den bidegabekeria honen aurrean, ez dugulako arazoaren parte izan nahi, konponbide justuarena baizik.

## EZ DA GERRA, GENOZIDIOA DA

Argi diogu: ez da gerra bat. Are gutxiago, Israel eta Hamasen artekoa.

Aire zabaleko munduko kartzelarik handiena izateari utzi dio Gazak. Orain 2,3 milioi pertsonen kontzentrazio-, sarraski- eta bortxazko desplazamendu-eremua da. Israelgo armadak hilabete eta erdian 13.000 palestinar baino gehiago hil ditu, horietatik %40 haurrak dira. Eta askoz gehiago daude zaurituta, traumatizatuta ala eraitsitako hondakinen artean hilotz.

Gerraz hitz egitea marko linguistiko eta politiko faltsua da. Berdinetik berdinerari ari diren bi aldeko auzi gisa aurkezteak egiazko biktima birbiktimizatzen du eta genozidaren eskua itzalpean gordetzen du.

Gazako blokeoa diseinatu zuen geografo sionista Arnon Sofferrek

argi adierazi zuen haren planaren helburua 2007an: "Animalia horiek are animaliago bihurtuko ditugu". 16 urte geroago, argudio bera darabil Israelgo Defentsa ministro Yoav Gallantek: "Giza animalien aurka ari gara borrokan, eta horren arabera arituko gara haiekin". Gizatasuna ere ezabatu nahi dute, palestinarra animalia bilakatuta, ondoren hildakoen zerrendarako zenbaki bat gehiago izan dadin. Hedabideon lana ere bada gorroto diskurtso horiek ez naturalizatzea, eta egileak salatzea, izen abizenekin.

## ERRUDUNAK ZIGORTU

Zigor kolektibo gisa populazioa bonbardatzea, bortxaz desplazamendu masiboa eragitea, elikagaiak, ura eta elektrizitatea etetea... gerra krimenak dira, Erromako Estatutuaren seigarren puntuan jasota dagoenez. Eta beraz, arduradunak, Benjamin Netanyahu buru, nazioarteko auzitegi penalera eraman behar dira gizateriaren aurkako krimenengatik epai ditzaten.

Ezerk ezin du horrelako sarraskirik justifikatu, ezta euskaldunok ondo baino hobeto ezagutu eta sufritu dugun "terrorismoaren aurkako borroka" manatuak ere. Ez dugu ahazten argudio hori erabili zutela Irakeko inbasioan ehunka mila pertsonaren hilketa justifikatzeko. Palestinako erresistentzia armatuak urriaren 7an egindako eraso ezin da aitzakia gisa erabili. Europak ezin du beste alde batera begiratzen jarraitu hamarkadetan giltzapetuta, setiatuta eta okupatuta dagoen herri oso baten sarraskiaren aurrean. Gustatu ala ez, historiak argi erakutsi digu injustizia errotuta dagoen lekuan, erresistentzia sortuko dela beti.

Palestinako okupazioaren arazoa europarra da. Europak lapurtu zien palestinareei haien lurra eta erakunde sionistei eman. Orduan onartu zituen Europak judutarrak "europar" gisa lehenbizikoz: Ekialde Hurbileko biztanle bilakatzean. Orduetik, 75 urtez

babestu eta armatu du indar okupatzailea, baita edozein gehiegikeriaren aurrean zigorgabetasuna eskaini ere. Beraz, konponbideak Europatik ere etorri behar du. Gero eta gehiago dekolonitateaz mintzo garen garaiotan, Palestinak ere deskolonizazio prozesua behar du, eta bide horretan ezinbestekoak dira nazioarteko elkartasuna, babeseta eta laguntza.

## EZ GARA NEUTRALAK

Hainbatetan alderatzen da Palestina eta apartheidaren menpeko Hegoafrika, palestinarren eta beltzen bazterketa sistematikoa bertsua delako, baita sistema injustu horiei aurre egiteko herritarren tresnak ere: erresistentzia babestea eta estatu genozidari boikota eta zigorrak sustatzea.

Apartheida bere azalean bizi eta borrokatu zuen Desmond Tuturen hitzak gaurkotasan handikoak dira: "Injustiziaren aurrean neutrala bazara, zapaltzailearen alde egotea erabaki duzulako da". ARGIAko kideok argi daukagu nondik idazten dugun. Palestinan eta Israelen okupatuak eta okupatzaileak daude, baztertuak eta pribilegiatuak, erresistenteak eta erasotzaileak.

Kazetaritzak mundua ulertzeko, eraldatzeko eta hobetzeko jarduna beharko luke. Kazetaritza independenteak ez du zerikusirik boteredunen argudioak akritikoki zabaltzearekin edo "bi aldean" argudioak jasotzearekin. Ausardiaz jokatzeko garaiak dira eta horregatik sortu dugu aldizkari berezi hau, palestinarren erresistentzia eta Israelen okupazioa hobeto ulertzeko asmoz. Palestinan deskolonizazioa, justizia eta berdintasunean oinarritutako konponbide justuaren alde gauden euskal herritarrok beste euskarri bat izan dezagun.

Ez gara genozidio baten propagandaren parte izango. ARGIA ez dugu Israelen genozidioa justifikatuko edo zurituko. Ez gure izenean. Genozidioa gelditu. ●

#### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,  
Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzagaña interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefona

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitara  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da  
testuentzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

## Panorama

- 03 | EDITORIALA
- 06 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 09 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 22 | MIKEL ARAMENDI

## Finkoak

- 44 | DENBORAREN MAKINA
- 46 | BIZI BARATZEA
- 48 | ARGI-KONTRA:  
MACARENA ARRIETA
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 52 | IPUINA: LATA-BALOIA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

AZALEKO ILUSTRAZIOA: ALEX ALBADREE



## Palestinaz elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL  
**Fosforo zuriaren  
irakaspena:  
zibilak jomugan hartzea  
bada gerra modernoan  
berritasuna**

Jenofa Berhokoirigoin

16 | ELKARRIZKETA | JALDIA ABUBAKRA  
**“Prezioa handia da, baina  
ez zegoen beste modurik,  
kausa palestinarra  
ahazten ari zelako”**

Axier Lopez

24 | IBI ESTATUEN IRTENBIDEA EDO...

**Estatu demokratiko  
bakarra palestinarraren eta  
juduentzat**

Xabier Letona

30 | ANALISIA  
**Frantzia-Israel harreman  
estua: historian  
sustraiturikoa eta  
gaur egun berretsia**

Jenofa Berhokoirigoin

32 | ERREPORTAJEA  
**Genozidioa zurrizko  
hedabideen hamar  
artefaktu**

Lander Arbelaitz

36 | “GAZAKO METROA”  
**Palestinarraren erresistentziaren  
tunel sistema**

Mikel Eizagirre

40 | ERREPORTAJEA  
**Bai, egin dezakezu zerbait:  
boikota Israeli**

Irantzu Varela / Pikara Magazine



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## EZ HANKA EZ BURU

## Gu



UXUE APAOLAZA LARREA

Bada herrialde txiki bat, basamortuz inguratua, mundu guztia-ri lezio bat eman dakiokena: ura nola kudeatu, nola berre-rabili, nola garbitu, nola lortu. Eskasiak egiten gaitu bertuoso, eskasiatik industria, eskasiatik sukaldaritza, eskasiatik herrialde txiki hau oasi egiten duten teknologiak. Ura birziklatzeko munduko instalazio handienak dituzte, irrigazio sistema egokiak, gatzgabetzeko instalazioak, airea ur bilakatzeko teknologia... Saltzeko ere badute ura, soberan, beraz, ondoan urik gabe bizi direnei (baita gainerako mundu osoari ere, Eden izeneko paradisu botilatuetan). Lehen munduko edozein herrialdek bezala, bere estrategia berdeak ditu Israelek, Mendebaldeko beste edozein herrialdek bezala, ustiatzeko hirugarren mundu bat duelako. Gertuegi, behar bada. Berdea gorri bilakatzen den muga horretan, hain zuzen.

Ez dakit non adosten den nongo plastikoa, nongo behiak, nongo kotoia edango ditudan nik. Ziur, gero eta gutxiago uzten ari naizela nire gauzak fabrikatzeko bere ura erabiltzen duen herrialdeari, gero eta gutxiago, gutxiago dagoenez. 1993an Oslon adostu genuen, denbora batez, Israelena izango zela ur partekatua (txis-teak berehala hasten dira) %80, eta palestinarrentzat %20. Beraz, legezkoa litzateke urte hauetan guztietan Israelek palestinarrek uraren %20arekin uztea: ez dute egin, noski. Gutxiago utzi diete.

Palestinarrek, guk nahi bezala, guk nahi ez bezala, hori ere geuk erabaki behar dugunez, esan dutenean “aizue, begiratu hona”, Israelek milaka hiltzeaz gain, ura moztu die (duten apurra), eta barregarria da Borrell haserre ikustea, “ura etetea nazioarteko zuzenbidearen aurka doa”. Eten hori amaitzen denean, palestinarrek jarraituko dute ura lortzeko azpiegiturak egin ezinik, egindako apurrak nola suntsitzen dizkieten ikusten, ura lapurtu dienari ura erosten... Guk jarraituko dugu ura edukitzen, jarraituko dugu Israelgo kontu berdeetan inbertitzen, jarraituko dugu europar, mugak urrun, berdeari gorria ikusi gabe, eta beldurra emango digu boikot esateak, genozidio... Beldurra emango digu esateak, esan behar dena. Norbait soberan dagoela. Eta Israel bada, agian... ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

“GENOZIDIO” HITZA 1944EAN  
ERABILI ZEN LEHENBIZIKOZ.

RAPHAEL LEMKIN ABOKATU  
JUDUAK ASMATU OMEN ZUEN.



## TEKNOLOGIA

## Gerraren automatizazioa



DIANA FRANCO

Dugun munduan, gure etxeko sofán eserita, dena egin dezakegula dirudi. Teklatuarekin, mugitu barik gailuekin elikatzen den saretik ia edozein gauza gure eskura dagoela iruditzen zaigu.

Gauzen internetaren kontzeptua entzun duzu noizbait? Gauzak (makinak) euren artean harremanetan jartzen direnean ematen den sarea litzateke. Internet eredu asko dago, eta internet gerra eraginkorragoa egiteko irudikatzen duenik ere badago. Gerrarako sortutako internet horretan, egongo liratekeen gauzak dira tankeak, droiak, torpedoak, eskuko armak, sentsoreak, minak...

Gerra eredu hori ikusten ari gara Gazan, Israelek aukera du aspalditik sortzen aritu den teknologia horiek esperimenta-

tzeko. Adimen artifizialarekin elikaturiko gerra gailuen interneta sortzen ari da, eta aurrez aurreko liskarrak bortitzagoak diren eredu bilakatu du gerra, aldean arteko asimetria handituz.

Gazako herria harrapatuta dago. Hamasek gerra honetan izan duen teknologiarik eraginkorrena lurpeko tunel sarea dela dirudi. Indarrean sustaturiko teknologiak botere harremanetan duen eragina handia da, zer beste botere dugu gizakiok horri aurre egiteko? Zer ikasi behar dugu gatazka honetatik? ●

## Gure eskuetan dagoena egin



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**E**z dago gure esku Israelek atzera egitea palestinar herria suntsitzeko helburuan. Eta ez gara gu izango denen begien aurrean egiten ari diren genozidioa geldiaraziko dugunak. Hala bada ere, ezin bestera aldera begiratu. Eta hala izanagatik ere, ezin gure eskuetan dagoena egiteko aukerak bilatzeaz utzi. Ez naiz ni izango zer gehiago egin dezakegun galdera erantzungo duena, ez dakidalako. Baina esango nuke egoeraren larritasunagatik gaituzte, edozein urrats txiki balioa kentzen diogula. Eta urrats handi eta erabakigarrietan pentsatzen hasita, gure txikitasunean itotzen garela.

Kontsumitzaileak garen neurrian boikota. Internazionalistak garelako elkartasuna bazter guztietara zabaldu, jende asko dagoelako oraindik palestinarren ahotsa eta aldarriak beraienak egin ditzaketanak. Eta langile bezala zer? Non dago gure lanarekin Israelen interesak ordezkatzeko eta zaintzen dituen bulegoren batean atzemango den mina egiteko aukera? Nola lortu Israelekin harreman ekonomikoak dituzten enpresetan genozidioa arazo bat izatea negozioa izan ordez? Halako enpresetan urratsak egitea izan liteke aukera bat, mobilizazioak motz geratu direla ikusten ari garen honetan. Besteak beste, lotura eta negozio horiek plazaratzen, salatzen, herritarren begietara onartezin egiten. Presioa egitea, lantokietan eta kalean.

Hori da langile bezala egin dezakeguna, eta ez da gutxi. Enpresak bertan daude, negozioak Israelen eduki arren. Eta bertan behar dute inguru eta giro aproposa, bertako instituzioak ere funtsezkoak baitira nazioartekotze estrategietan, bertan behar dute erosotasuna eta lasaitasuna. ●

# Israelen gezurrak

ERREDAKZIOA

**G**erra eta gezurra bat doaz eta Israelek historikoki erakutsi du gezurra maneatzeko duen abilezia. Azken egunotan ere, batere garbi ez dauden Israelen bertsio ofizialak asko zabaldu dira.

**Ospitaleei erasoak.** Urriaren 17an al-Ahli ospitaleak jasandako bonbardaketak ehunka hildako utzi zituen eta Israelek palestinarrei leporatu zien erasoak. Israelgo Gobernuaren arabera, Palestinako Yihad Islamikoaren misil erratu batek jo zuen ospitalea; Hamasek ukatu egin du eta Israelgo armadari egotzi dio erasoak. Bai Al Jazeera, bai *The New York Times*ek gerora egin duten ikerketek erakutsi dute Hamasen misila (Israelgo Gobernuak seinalatutako misil erratua) ez zela izan ospitalea suntsitzearen erantzulea.

**Ospitaleak, Hamasen gotorleku?** Azaroaren 15ean, Al-Shifa Gazako ospitale nagusian sartu ziren Israelgo indar armatuak, goitik behera miatzeko. Soldaduek ospitaleko langile eta pazienteak oldarkor galdekatu zituzten, hainbat lagunengatik tiro egin zuten, ospitaleko pasillotik ateratzen saiatu zirenean. Ospitalean Hamasen tuneletarako sarrera dagoela eta bertan

bahituak dituztela, hori izan da Israelgo indar armatuek eman duten argudioa, baina tunelak ez dira agertu, eta ospitalean Hamasen tunelak daudela zioen erizain baten bideoa, aktore batek grabatutako bideoa dela frogatu da.

**Hamasek burua moztutako haurrak.** Urriaren 7ko erasoan, Hamasek bahituak bortxatu eta umetxoei burua moztu ziela zabaldu zen lau haizetara, frogarik gabe. Israelgo soldaduen bertsioa Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak baieztatu zuen, eta atzetik Joe Biden AEBetako presidentek errepikatu, berak ere argazkitan ikusi zuela. Gutxira, ordea, Bidenek gezurtatu behar izan zuen halako irudirik ikusi zuenik.

**Urriaren 7an gertaturikoa.** Urriaren 7an, Hamasek erasoak egin zuten Israel hegoaldean eta Israelgo agintarien arabera, 200 bat herritar bahitu zituen eta 1.400 inguru hil. Ondoren jakin da, ordea, Israelgo indar armatuek eurek ere hil zituztela herrikideak. Besteak beste, Beer Shevako segurtasunaren arduradunetako batek, Tuval Escapa-k, adierazi du bahituen etxeak bonbardatzeko agindua jaso zutela israeldarrek, Hamaseko kideak hiltzeko helburuz, baina ekintza horrek herritar israeldarren hiltzea ekarri zuen eraikin israeldarren aurka ere eraso egin zuten indar israeldarrek, Hamasek eraikinak hartu zituztelako, baina bertan israeldar soldadu eta langile ugari lanean ari ziren une horretan. Hamaseko kideekin tiroketa gurutzatuan, militar israeldarrek herritarrek hil zituztela ere (tartean Hamasek bahiturikoak) aitortu dute lekuko israeldarrek.

**Ez da lehen aldia.** Aurretik ere, ohikoa izan da gezurraren erabilera Israelgo agintarien eskutik. Shireen Abu Akleh Al Jazeera-ko kazetari ezagunaren kasua, esaterako, asko hedatu zen. Hasiera batean, militante palestinarrek hil zutela esan zuen Israelgo armadak, eta hilabeteak eta gero, ikerketek inguratuta, seguruenik Israelgo soldadu baten tiroa izan zela onartu zuten. Ikerketek erakutsi zuen soldaduak apropos egin ziola tiro burura kazetariari. ●




GETTY IMAGES



# Haur biktimen kopurua gatazketan

## Hileroko batez bestekoa



# 15

minuturo ume bat hiltzen da Gazan. Beste era batera esanda, urriaren 7az geroztik 4.500 ume palestinar baino gehiago hil ditu Israelek, astekari hau ixteko unean (azaroaren 20an). Israelgo Estatua egiten ari den urraketa bat gehiago, giza eskubideen aurka.

Iturria: Irak, Siria eta Yemen (UNICEF), Gaza (OCHA), Afghanistan (UNAMA) eta Ukraina (Ukrainako gobernuak). 2023ko azaroak 7

# 60

kazetari inguru hil ditu Israelek, urriaren 7az geroztik. Kazetarien Segurtasunerako Batzordearen arabera, Gazakoa izaten ari da hedabideetako langileek bizi izan duten gatazkarik hilgarriena, 1992an datuak hartzen hasi zenetik.



# %4

baino txikiagoa da Benjamin Netanyahu lehen ministroa gerraren inguruko informazioa jasotzeko iturri fidagarria dela uste duten israeldar judutarren kopurua. Alegia, Netanyahu haren fidagarritasunak hondoa jo du.

# Zisjordanian, egoera “jasanezina”

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Urriaren 7ko Hamasen erasoarenurretik, Zisjordaniakoa azken 15 urteetako urterik hilgarriena izaten aizen. Israelgo armadak eta kolonoek urriaren 6ra arte 200 palestinar hilak zituzten. Gudaren azken kapituluak, ordea, askoz ere gehiago tenkatu du egoera eta azken sei asteetan 198 palestinar hil dituzte, 52 haur barne, Israelgo Polizia indarrek Zisjordanian. Aldizkari hau inprentara joan den egunean (azaroaren 20), 2.520 dira Zisjordanian asteotan Israelek atxilotu dituen pertsonak.

**Azken sei asteetan  
198 palestinar hil  
dituzte, 52 haur  
barne, Israelgo Polizia  
indarrek Zisjordanian**

Horrez gain, fokua Gazan jarrita dagoe-la baliatuz, kolonoen erasoak etengabeak izaten ari direla salatu du Aginte Palestinarrak. Ia ehun herriri egin diete eraso israeldarrek, etxe ugari su eman eta zenbait herri hustu. Herritarrek ihes egin behar izan dute, bizia salbatu ahal izateko.

Urriaren 20an Al Jazeera-k zabaldu-tako informazioaren arabera, urriaren 12an Wadi al-Siq herri beduinoko fami-



JAEAR ASHTIYEH AFP

Zisjordaniako Balata errefuxiatuen eremua, azaroaren 18an Israelek bonbardatu ostean.

liak beren etxeak desmuntatzen ari ziren, armatutako israeldarrak ondoko kolonia ilegaletatik etorri eta herria hartu zute-nean. Bi egun lehenago, ekintzaile bakezale batek sare sozialetan abisua eman zuen, Wadi al-Siq-en aurkako progroma edo eraso prestatzen ari zirela batzuk,

eta komunitateak herria hustea erabaki zuen. Hala, herrikka berentzat hartzea lortu zuten kolono horiek.

Palestinako Osasun ministerioak emandako datuen arabera, 874 pertsona behartu dituzte kolonoek beren etxeak uztera. ●

**GREBA OROKORRA**

**FEMINISTAK GARELAKO  
ZAINZA PUBLIKOAREN ALDE**

**AZAROAK 30**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



# Sarraskiarekin kritiko diren israeldarrak

**ERREDAKZIOA**

Israel eta judutarrak, denek pentsamendu bakarra balute bezala irudikatu dute maiz hedabide hegemonikoek, Israelgo Gobernuaren erabakiekin eta indar armatuak aurrera eramaten ari diren genozidioarekin bat egingo balute bezala. Baina israeldarren eta judutarren euren artean, ahots kritikoak eta protestak ikusten ari gara han-hemenka, munduan barna. Hori bai, gobernuaren politika salatu edo are, kritikaren bat egiteko ausardia duenari, errelato hegemonikoa zalantzan jartzen duen orori gogor erantzuten diote Israelgo agintariei. Horren erakusgarri, Hamasek bahituriko 85 urteko Yocheved Lifschitz. Bahitu eta egun batzuetara askatu zuten, "arrazoi humanitarioak" argudiatuta. Lifschitzek esan zuen bahitzaileek ongi tratatu zutela eta hori ez zitzaion Israelgo agintariei gustatu. Hamasi propaganda egin izana salatu zuten eta emakume hori hedabideen aurrean jartzea akats gisa baloratu zuten. Israelgo hedabide nagusiek ere, bahituaren prentsaurrekoa kritikatu zuten.

*Haaretz* hedabide israeldarrak berriki plazaratutako editorialean, gogor kritikatu du gobernuan eskuin muturrak duen indarra, eta nabarmendu du Netanyahu ez dela soluzioa, arazoa baizik, urteotan Israel muturrekoago bilakatzeagatik, eta Israelgo gizartean adostasunik ez duten ideia eta balioak normalizatzeagatik.

Ildo berean, Palestinaren okupazioa gaitzesten duten Israelgo militar ohiek, Breaking the Silence elkartearen bildurik, irakurketa plazaratu dute egunotan, Israelen "sarraski ikaragarria eta kriminala" gaitzetsiz. "Ezer txarrik egin ez duen herri bat erasotzen jarraitzen badugu, gure lorpen bakarria izango da biolentziaren eta odol isuriaren zikloa behin betikotzea". ●

*"Nazio Batuetako langile humanitario gehiago asasinatu dituzte, gure erakundearen historiako beste edozein garai konparagarrietan baino"*

**ANTONIO GUTERRES**

NBEko idazkari nagusia.



*"Errusiako buruzagiek ospitaleak bonbardatzeari utzi behar diote, gerra krimenak egin izanaren salaketa jaso nahi ez badute"*

**HILLARTY CLINTON**

AEBetako idazkari nagusi ohia, 2022ko adierazpenetan.



*"Israel egiten ari dena defentsarako eskubide legitimoa da, Israelen kontrako alegazioak zentzugabeak dira"*

**OLAF SCHOLZ**

Alemaniko kantzilerra.



# ISRAELEK GAZA ISOLATUZUEN **BLOKEOA EZARRI BAINO ASKOZ LEHENAGO**

**Gazako Zerrendaren egungo itxiera militarra eta blokeoa hamarkada askotan Israelen politikak gogortu izanaren emaitza dira, isolamendua Gazako bizimoduaren parte bihurtzeraino.**

1948ko Nakban, 200.000 errefuxiatu palestinarrek Gazara ihes egin zuten. Biztanleria hirukoiztu zuten gauetik goizera. Gazako Zerrenda, 1948 aurretik Gazako barrutiaren zati bat zena, gainontzeko Palestina historikotik banandua izan zen, biztanle-dentsitate handikoa eta ekonomikoki erabat mendekoa. Gertaera horiek bidea ireki zuten Gaza uzteko politika israeldar gogorrenetakoaren mende, isolamendua eta blokeoa oinarri dituen.

مركز الميزان لحقوق الإنسان  
AL Mezan Center for Human Rights



VISUALIZING **PALESTINE**

Itzulpena: ARGIA







## 2007 **BLOKEO INPOSATUA**

Lurrez, airez eta itsasoz ezarritako blokeoa, gaur arte dirauena

## 2006 **ISOLAMENDU AREAGOTUA**

Palestinako hauteskunderen atarian

## 2005 **ALDE BAKARREKO BEREIZKETA**

Israelek Gazako koloniak eraitsi zituen eta okupazio militarra Gazako perimetrotik bideratu zuen. Ariel Sharon lehen ministroa:

## 2004 **"Gaza ezin da betiko mantendu. Milioi bat palestinar inguru bizi da han , eta belaunaldi bakoitzeko, kopurua bikoizten dute"**

## 2003 **FAMILIAK BEREIZTEKO POLITIKA**

Zisjordanian bizi ziren gazatarrak indarrez kanporatu zituzten Gazara. Familiak zatituta geratu ziren. Orduetik Zisjordaniako palestinarrek

## 2002 **Gazara joan daitezke Zisjordaniara itzultzeko eskubideari uko egiten badiote betiko**

## 2001 **GAZAKO AIREPORTUAREN BONBARDAKETA**

Palestinarren aireportua suntsitu zuen Israelgo armadak

## 2000 **GAZAKO PORTUAREN BONBARDAKETA**

Bigarren Intifadan ezarritako itxierak iraunkor bihurtu ziren, Gazako ikasleek Zisjordanian ikasteko debekua barne.

## 1999 **Israelek murrizketa zorrotzak ezarri zituen Gazarako inportazioetan**

## 1998 **LANERAKO ETA SENIDEAK BISITATZEKO BAIMENAK ASKO MURRIZTU ZITUZTEN**

1997

## 1996 **GAZAKO EKONOMIA NEURRI HANDI BATEAN ZISJORDANIATIK BEREIZITA**

## 1995 **Gazatik Zisjordaniarako esportazioen jaitsiera nabarmena; lurralde-uretarako sarbidea ukatu zien palestinarrei Israelek**

## 1994 **GAZA INGURUKO HARRESIA ERAIKITA**

kontrol zorrotzagoa jendearen eta ondasunen mugimenduetan

## 1993 **HASIERAKO ITXIERAK**

Israelen itxierak egiturazko errealitate iraunkor bihurtu ziren Gazan

1992

## 1991 **BAIMEN-SISTEMAREN EZARPENA**

lehen aldiz, inor ezin da Gazatik irten Israelen baimenik gabe

# FOSFORO ZURIAREN IRAKASPENA: ZIBILAK JOMUGAN HARTZEA BADA GERRA MODERNOEN BERRITASUNA

Tsahal Israelgo armadak Gazara jaurtikitako fosforo zuriaz informazio bila hasi eta gerra-estrategia krudel batekin egiten dugu topo: gerra modernoetan soldaduek baino gehiago zibilak dira jo mugan. Airearen kontaktuan zartatzen den fosforo zuria erabilpena bada estrategia horren parte. Funtsean, Gazako ospitaleak bonbardatzea baden bezala. Xehekiago begiratu diegu fosforo zuridun eraso horiei, eta horiek bideratzeko erabakiaren atzealdean den helburuari. Hortik ezagutu dugu AEBetako armadak 1996an onduriko *Shock and awe* [Harridura eta ikara] doktrina.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**G**azako sarraskiaren jarraipenean ateratzen zaigu noiznahi “fosforo zuria” terminoa. Arma hori erabiltzen dabil Israel, eta guti ala asko badakigu zer nolako itxura duen; jaurtiki eta inguru guztia argitzen duen suziri artifizial gisako bomba bat dela badakigu. Nazioarteko legediak arauturiko –eta beraz baimenduriko– arma hilkor horri buruzko informazio anitzez gehiago ez digute ematen komunikabide *mainstream* handiek. Agian, xehekiago begiratu gero begibistakoa geldituko litzazkigukeelako arma hori arautzen duen Arma Klasikoei buruzko Hitzarmeneko III. Protokoloaren absurditatea, hipokrisia eta eragin-eza? Segur aski.

Legediari segi, fosforo zuridun armak ez dira arma kimikoen zerrendan sartuak, “arma supiztaile” gisa sailkatuak dira. Bere horretan, arerioa erasotzeko ezin daitezke erabili, baina –eta baina horrek irekitzen ditu ate guztiak– baldintza batzuk betez gero erabilpena baimendurik da: gudu-zelaia argitzeko edota gudu-zelaia ketu eta mugimendu oro gordetzeko.

Eta horretan dabil Israel, gudu-zelaia argitzeko *joker*-a erabiliz, ehun-

---

**Erasotzeko ezin daitezke erabili fosforo zuria, baina –eta ‘baina’ horrek irekitzen ditu ateak– baldintza batzuk betez gero, baimendua da: gudu-zelaia argitzeko edota ketzeko**

ka palestinar fosforo zuriz erasotzen, erretako haur, agure, gazte ala dena delakoak heriotzara ala bizi osorako min eta traumatara bideratzen. Gainera, arrazoi hori gezurtatuz gero, beste *joker* bat erabili dezake: jendea bizi den gunetan ezin daitezke arma supiztaileak airetik lurrera jaurtiki, baina lurretik lurrera bai, baldin eta helburu

militarra “argiki zibilen kontzentrazio-tik bazter bada” –“argiki” baino hitz lausoagorik...– eta zibilak babesteko “eskura diren neurri guztiak” hartu badira –hor ere zehaztasun-eza nagusi-. Alta, jakinik 45 km<sup>2</sup> dituen Gazako zerrendan bi milioi palestinar baino gehiago direla atera ezinean, nekez sinetsi dezakegu zibilak saihesteko gisan jaurtikiak direla bonbak.

Urriaren 7az geroztik badabil Israelgo armada fosforo zuria Gazara eta Libano hegoaldera botatzen, Amnesty International Gobernu Kanpoko Erakundeak frogatu duenez. Ez da lehen aldia. 2006an erabili izana aitortu zuen Israelek berak, eta 2008-2009ko Berun Urtu Operazioan ere baliatu zuen –orduan ere Hamas erakundearen aurka egin eta Gazako 1.330 zibil hil zituen Israelek 23 egunez–.

## **FOSFORO ZURIAREN TRAUMAK EDO ‘SHOCK AND AWE’ DOKTRINA**

Arma suntsikor horren erabilpena ez da hutsala eta fisikoaz gain, psikologian ere eragiten du krudelki. Materia hori airearen kontaktuan zartatzen da, izugarriko sugar beroak eta ke toxikoak eraginez. Hunkitzen duen oro sakonki erreko du,





DALE SPENCER


**ERABILERA ARAUTUA.** Berez ez da arma kimiko bezala sailkatua fosforo zuria, baizik eta “arma supiztaile” gisa. Hori horrela, erabili daiteke, baina baldintza batzuk errespetatuz. Amnesty Internationalek frogatu bezala, Israelek Gazan egindako erasoetan baldintzak ez dira bete.

gorputzei dagokionez, larrua kiskali eta hezurretaraino edo burmuineraino erretzen segituz. “Orokorki, erredurak dituen gaixo bat artatzen badakigu, eta ez da egoera okertzerik. Kasu horietan ezinezko da, eta gainera, zauriak irekitzen segitzen du, ordu batzuetara oraindik ke zuri bat eskapatzen zaio gorputzetik. Operazioa da daukagun aterabide bakarra”, kontatzen du Shifako ospitalean dabilen Nafez Abou Shaaban medikuak –hain zuzen, ospitale hori du fosforo zuriz bonbardatu Tsahalek azaroaren 11n–.

Maltzurrena da partikulak jantzi-tan kokatzen direla eta artatzera datozen ingurukoei ere erredurak eragiten dizkiela. Hori da produktu horren “drama”, *Bastamag* komunikabideko *Gaza: pourquoi l’usage de bombes au phosphore blanc est un crime de guerre* [“Gaza: zergatik fosforo zuridun bonben erabilpena gerra krimena da”] erreportajeon ongi azaltzen denez: “Emakumeak, haurrak, eta bestelako dozenaka zibil erretzen ari direla, beren hurbilekoek ezin ditzakete behar bezala artatu”.

Human Rights Watch GKEaren *Ces flammes traversent tout* [“Sugarrek guztia trabeskatzen dute”] txostena irakurtzekoa da arma horren eragina hobeki irudikatzeko. 2020koa da eta Gazan, Afganistanen eta Sirian bildutako lekukotasunez osatua da. Ondokoa irakurri dezakegu: “Arma supiztaileak gaitzeko sufrikarioak eragiten dituzte, eraso gertatzerakoan, baita ondoko aste eta hilabeteetan ere. Erredura ikaragarriek artatze minberatsuak ondorioztatzen dituzte. Arnas-sistema kaltetzen eta larritasun emozionala ondorioztatzen dute”.

Garrett Leight eyewear



**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)








GETTY IMAGES

**ERABILI IZANAREN FROGAK.** Argazkiak, bideoak zein lekukotasunak, frogak ez dira eskas ondokoa baieztatzeko: urriaren 7az geroztik behin baino gehiagotan erabili du fosforo zuria Israeliek. Urriaren 9ko argazki hori badauka, adibidez, Amnesty Internationalek. Herritarrek babesteko neurririk ez duenez hartu, gerra krimen gisa sailkatua izan daiteke erabilpena.

Erran gabe doa ez dela erredura ttipi bat, eta gorputzaren %60-80 hezurretaraino errea izatea ohikoa dela. Human Rights Watchek dio gehiengoa berehala hiltzen dela eraso jasan duen pertsona, gorputzaren %10 hunkia izateak heriotza ekarri ohi duelako. Biziraunez gero, bizi osorako arta eta min "kalbarioa" pairatu beharko du. Fosforo zuriaren toxikotasunak odol-leko, biriketako, giltzurrunetako zein gibeletako eritasunak ondorioztatu ohi ditu.

Baina, horregatik guztiagatik da, hain zuzen ere, erabilia: zibila maltzurki suntsitzeko armarik eraginkorrenen artean delako. *Gaza: zergatik fosforo zuridun bonben erabilpena gerra krimena da* erreportajea esplikatu zaigun gisara, hori dugu gerra modernoaren zutabeetariko bat: zibilak jomugan hartzea.

Israelen gerra estrategiaz ari da erreportajea, zehazkiago 2008-2009 urteetan buruturiko Berun Urte Operazioaz. Gaurkotasun handiko erreportajea da, tartean, azken egunetan Israeliek erabilitako argudioei oihartzun egiten diolako: Hamasek "herrita-

---

**“Erredurak dituen bat artatzen badakigu, baina fosforo zuridun bat ez. Zauriak irekitzen segitzen du eta ordu batzuetara ke zuri bat eskapatzen da oraindik gorputzetik”**

rrak bahitzen" dituela, zibilak nolabaiteko "erredola" gisa erabiltzeko. Fabio Mini militar eta idazle italiarrak dioenez, argudio hori "aspaldian erabilitako propaganda da", zibilak jomugan hartzearen estrategia kamuflatzeko.

*Shock and awe* [Harridura eta ikara] doktrinaren osagaietariko bat da gerra

zelaia arerioaren herritarren artera eramatearena. AEBetako armadak garatu zuen doktrina hori, zehazkiago, Harlan K. Ullman eta James P. Wade militarrek, Golkoko lehen gerraren kari. Indarraren muturreko erabilpen ikaragarri baten bidez arerioa hasieratik uzkuetzea du funtsa –“Harridura eta ikara-ren erabilpen zuzenak arerioaren jendartea mehatxu eta jarduteko beldurra eragin behar dio”-. Armen erabilpen mugagabeaz gain, egunero azpiegiturak dira jomugan, direla argindarra, ur-sistema, internet sarea, ospitaleak, eskolak ala beste. Hori ere, denon begien bistan gertatzen ari zaie Gazan: munduko komunikabideen lehen lerroetan egon da internet eta komunikabideak Israeliek moztu izana. Orain munduko komunikabideen lehen lerroetan da Tsahalek ospitaleak jomugan hartzearena: urriaren 7az geroztik 250 aldiz baino gehiagotan bonbardatua izan da Gazako osasun sektorea, Gazako 36 ospitaleetatik 20 erabat geldirik dira –Munduko Osasun Erakundearen zifrak dira, azaro has-tapenekoak–, eta besteak ahal bezala dabilta, ur eta elektrizitate eskasean,



**LEHEN MUNDU GERRAN ERE.** Fosforo zuriaren erabilera ez da berria, eta argazkian ageri denez, Lehen Mundu Gerran ere erabili zuten. Haatik, garaian ez bezala, gerra modernoetan zibilen kontra erabilia da geroz eta gehiago. AEBek landuriko *Shock and awe* doktrinaren parte da erabilera hori.



WIKIPEDIA

erremediorik eta anestesikorik gabe.

Mary Kaldor unibertsitariak plazazaturiko *New & Old wars* ["Gerra berriak eta zaharrak"] liburutik harturiko ondoko egiaztapena dakar erreportajeak: "Gerra zaharretan oro har nahigabeko eta bidegabeko albo-kalte gisa kontsideratua zena gerra berrien gudu-era nagusi bihurtu zaigu. (...) Zuzeneko konfrontazioak saihestu eta indarkeria nagusiki zibiletara bideratzeko joera argiki ageri da biktimen artean zibilen

**'Shock and awe'**  
**[Harridura eta ikara]**  
**doktrinaren osagaietariko**  
**bat da gerra zelaia**  
**arerioaren herritarren**  
**artera eramatearena**

razioak daukan emendio dramatikoan. XX. mendearen hasieran, gerren biktimen %85-90 militarrek ziren. Bigarren Mundu Gerran kasik erdia zen zibila. 1990eko hamarkaren bukaeran duela ehun urtetako proportzioak ia anderantzikatu ziren eta gaur egun biktimen ia %80 zibilak dira". 1999koa da liburua eta geroztik tendentzia areagotu besterik ez da egia. Zibilen proportzioa %100etik hurbil kokatzeraino Gazako zerrendan. ●



## ATXEGA JAUREGIA

### JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK  
 EKITALDIAK , OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • [www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

“ ”

# *Prezioa handia da, baina ez zegoen beste modurik, kausa palestinarra ahazten ari zelako*

Jaldia Abubakra

Jaldia Abubakraren (Gaza, 1967) historia munduan barrena errefuxiatuta dauden zortzi milioi palestinarrak da. 1948an sionistek Palestina hegoaldeko lurraldeetatik kanporatu zuten familia batean jaio zen. Gazan errefuxiatu ziren, ondoren Egiptora joan eta handik gaur egungo bizilekura: Madrilera. Alkarama erakunde feminista eta antikolonialistaren sortzaileetako bat da, baita Masar Badil (Ibilbide Iraultzaile Alternatiboa) mugimenduarena ere. Ezkerretik eta laizismotik, Palestinako diaspora elkartzeko lanean ari dira mugimendu horiek. Abubakra Euskal Herrian izan da berriki Zumaiako Emakumeen Etxearen eskutik.

 AXIER LOPEZ / ARGIA CC BY-SA

**Zure hitzaldiaren bezperan, lagun batek esan zidan ez zuela ondo ulertzen Palestinan gertatzen dena, gai geopolitikoak oso zailak baitira.** Geopolitikak apur bat beldurtzen du bai, baina Palestinan herri palestinarra eta gure lurraldeak okupatzen dituzten kolono atzerritarrek bizi dira. Okupatzaileen gobernua nazioarteko potentzia nagusiek laguntzen dute, Ekialde Hurbilean dituzten interes ekonomiko eta politikoengatik. Herri okupatu bat dago, inoiz makurtu ez dena eta 100 urtez borrokan ari dena. Ez dute lortu gu ezabatzea, ezta txikitzea ere, gero eta gehiago garelako. Hortik dator Israelek demografiari dion beldurra. Golda Meirrek –Israelgo Estatuaren sorrera sinatu zuen lehen ministro

sionistak– 1948an esan zuen [palestinarrak] “edadetuak hil egingo dira eta gazteek ahaztu egingo dute”. Baina, egun, gazteek gehiago eusten diote borrokari gurasoek edo amona-aitonek baino.

**Palestinarez ari garenean, begirada, jakina, Palestinara joaten zaigu. Baina palestinarraren herriaren gehiengoa diasporan bizi da, zu zeu horren testigu.**

Nakban, 1948an, palestinarrak bi herren beren herrietatik kanporatu zituzten. Oraintxe bertan, palestinarrak erdia baino gehiago diasporan bizi gara.

Mundu guztiak bi agintaritzetara begiratzen die. Batetik, Hamas Gazan, inork ez du haiekin hitz egin. Bestetik, Mah-

moud Abbasen Aginte Palestinarra, Zis-jordanian nazioarteko komunitateak solaskide duena, haren eskaera oro onartzen duelako. Hori da munduak Palestina gisa aitortzen duena. Ekuazio horretan, kanpoan gaudenok ez gara existitzen. Ez dugu ahotsik, eta horren jatorria Osloko akordioetan dago. Hor diasporako palestinarrak baztertzea erabaki zuten. Akordio horiek hautsi egin zituzten Palestinako herriak atzerrian eraturako erakundeak: Palestinaren Askapenerako Erakundeak (PAE) zeuden langileen sindikatua, ikasleena, emakumeena... estatu baten tankerako antolakuntza zen, palestinarrak guztien arazoez arduratzen zena, Palestina historikoan zein atzerrian bizi zirenenak. Hori guztia suntsitua izan da.



### Horregatik ari zarete antolatzen?

Bai, Massar Badil mugimendua sortu dugu, Ibilbide Iraultzaile Alternatiboa. Gure ahotsa berreskuratu nahi dugu. Palestinako diaspora berriz antolatzen ari da, batez ere gazteria. Palestinatik kanpo jaiotako gazteria, Palestina ezagutzen ez duena, arabieraz hitz egiten ez duena, bakoitzak du bere hizkuntza, baina Palestina defendatzeko antolatuta dago, batez ere “piztiaren bihotzean”, Mendebaldean. Hemen bertan, Espainiako Estatuan, Palestinako gazteriaren mugimendu bat dago: Al yuddur.

### Osloko Akordioez ari zara, Jassir Arafat buru zela. Erresistentzia palestinarraren munduko ikurra izan zen, baina gaur egun asko dira esaten dutenak bere alderdia, Al-Fatah, “Israelen zaindaria dela Zisjordanian”.

Guretzat ere ikonoa zen, herri palestinarraren borrokaren ordezkaria. Oso karismatikoa zen, jendearekin konektatzen zuen eta oso mediatikoa zen. Baina palestinarr askoren ustez Arafatek traizionatu egin gintuen Israelekin negoziatzen hasi zenean, noiz eta palestinarraren egoera ahula zenean. Eta horrela, Lehen Intifada geldiarazi, jendea engainatu eta trukean apurrak eman zizkioten. Osloko Akordioak irakurriz gero, segituan jabetuko zara ez dagoela ezer ere palestinarraren alde. Akordioen ostean esan zuten “aurrerago puntuak negoziatzen joango gara”, baina paperaren gainean ez zegoen ezer jasota, ezta kolonien amaiera ere. Are gehiago, akordio horiek diote lurraren %20 palestinarrarentzat dela eta gainerako guztia sionistei eman behar zaiela. Jakina, gehiengoa ez dago ados. Ez dugu ahaztu errefuxiatuak itzultzeko eskubidea, ez 1948ko lurretan bizi diren palestinarrak, ez Jerusalem...

Askorentzat Arafatek oker jokatu zuen, egoa burura igo zitzaion. Ez zien gainerako kideei entzuten. Geroago, Zisjordanian itzuli eta ados agertu zenean erresistentziak berriz borrokari ekitearekin, Israelek bere egoitzan giltzapetu zuen, setiatu egin zuten, eta handik gutxira hil zen edo hil egin zuten. Oraindik ez da frogatu, baina badira hilketaren zantzuak.

### Beharbada, gutxi hitz egiten da Palestinako klase borrokaz.

Horixe. Arafati buruz esandakoaz harago, munduko leku orotan bezala, Palestinan ere eliteak eta burgesia daude. Kapitalismoaren eragile horiek lasaitasuna



besterik ez dute nahi, negoziak egin eta dirua irabazten jarraitzeko. Eredu hori urrunetik dator. Palestinako buruzagiek 1936ko matxinada geldiarazi zuten –sei hilabeteko greba orokorra–, elite palestinarrak herrialde arabiarretako agintariekin akordio batera iritsi zirelako, dirua galtzen hasi zirelako. Eta mende erdi geroago, Osloko Akordioak sinatzean, berdin. Orduetik, eredu hori indarrean da.

Kasu, oraindik bada “bake ekonomikoaz” hitz egiten duen agintaririk. Jendea ghettoetan bizi den bitartean, Zisjordanian enpresa batzuek saltzen, erosten, irabazten jarraitzen dute... gainera, horietako askok norekin eta oku-

patzailearekin egiten dute negozioa. Abbasen gobernuak kideetako bat Hussein Al-Sheikh da. Gizon hori Tel Avivera joan ohi da, israelarrekin negoziatzera Zisjordanian palestinarrak kolonietan lan egin ahal izateko lan-baimenak. Diruaren truke egiten du, baimen horiek behar handia duten langileen familiei saltzen baitizkie.

Abbasen gobernuak “lasaitasuna” inposatzen du Zisjordanian. Unibertitateetan politikoki antolatzen eta manifestatzen ari diren gazteak atxilotzen eta zigortzen ditu. Palestinako Agente Nazionalaren (PAN) ustelkeriari buruz hitz egiten duten kazetariak ere espetxeratu, torturatu eta batzuk hil egin dituz-

te. Gogora dezagun Nizar Banaten kasua. Youtuberra zen, PANeko ustelkeriaren sareaz mintzo zen. Behin baino gehiagotan espetxeratu zuten, eta azkenean bere etxean bertan hil zuten. PANeko 25 segurtasun-agentek jipoitu eta hil egin zuten.

**Batzuen ustez hobe da norberaren miseriez eta kontraesanez ez hitz egitea, batasunaren izenean, “helburu nagusia” Palestinaren askapena baita. Hau da, palestinarren artean gertatzen denaz hitz egiteak mesede egiten al dio kausari?**

Bai, noski! Hori ez egin izanak eraman gaitu orain gauden egoera makurrera. PANek erresistentziaren ahotsak isiltzen ditu, palestinarrak zapaltzen ditu. Berbarako, Basel Al-Araj Zisjordaniako aktibistaren kasua. Berak idazten, hitzaldiak ematen eta bere hirian ibilbideak egiten zituen Palestinaren historia hedatu asmoz. Lehenik, PANek atxilotu zuen eta denbora luzez eduki zuten kartzelan. Ondoren, armada sionista jarraika izan zuen, eta azkenean, Zisjordanian hil zuten israeldarrek. Herrialde batzuek diote Palestinako Estatua aitortzen dutela. Zer estatu, baina? Israelgo armada Zisjordaniara sartu eta irteten da, palestinarrak espetxeratu, hil eta torturatzen ditu. Nahi duena egiten du, nahi duen bezala.

**Osloko Akordioak, ustelkeria eta kolaborazionismoa. Hamasek egun duen hegemonia ulertzeko gakoak al dira?**

Jendeak zer egingo du ikusten duenean ezker palestinarra desagertuta dagoela, ez duela eraginik, eta Fatah-ko Aginte Palestinarra, eskuindarra eta liberala, ustela dela, bereak zapaltzen dituela eta etsai sionistarekin kolaboratzen duela. Askorentzat Hamas erresistentziaren sinonimoa da, gure eskubideak defendatzen dituztenak dira. Horregatik du hainbeste jenderen babes. Gazteak Hamas eta Jihad Islamikora batzen dira, Palestinaren askapenaren alde borrokatu nahi dutelako. Izan ere, beste aldean daudenek ezer ez egiteaz gain, kausa palestinarra kaltetzen dute.

**Hitz egin dezagun Palestinako ezkerreaz.**

Ezker internazionalistak 1970eko hamarkadan harreman handia zuen Palestinako ezkerrearekin, baina, urteekin, behera egin du, ezkerrearen indarra na-



Israelen eraso eta mehatxuak direla eta, milaka palestinar Gaza hegoaldera ihesean joan dira.

MAHMUD HAMS/AFP

zioartean jaitsi den hein berean. Nahiko nuke ezkerria izatea nire herriaren borrokaren buru, baina ez da horrela. Palestinar herriaren borroka nazio askapenerako borroka da, eta ez da inoren eredurik inposatzen saiatu behar. Palestina libre denean, nik Palestina sozialista nahi dut. Baina orain borrokan ari direnak, hobekien antolatuta daudenak, dena ematen ari direnak eta jendearen babes lortzen ari direnak alderdi islamistak dira. Eta ez datoz Martetik. Palestinar herriaren parte dira. Ni ezin naiz haien aurka egon. Al-Fatahk, 70eko hamarkadan borrokan ari zenean, herriaren babes osoa zuen, borrokan ere ari zen ezker palestinarrak baino babes handiagoa. Ezkerreko alderdien lidergoa dekadentea da, eta horrek eragozten du beren militante gazteen emantzipazioa.

**Islamaren goraldia nabaria da eskualde osoan.**

Inguruan gertatzen den guztiak eragiten digu, eta islamaren gorakadak ere bai, jakina. Alderdi islamistak babes eta boterea lortzen joan dira, inguruko herrialdeetako alderdi islamisten laguntzarekin. Ezkerrek ez du inoren babesik, eta areago, ezer ez bada egiten ari. Hezbolak eta Iranek erresistentzia palestinarra

babesten dute, desberdintasun erlijiosoetatik haratago –haiek xiitak dira, eta palestinarrak sunitak-. Herri Frontea (PAHF, edo PFLP ingelesez) ere babesten dute, baina PAHF ez dago antolatuta borrokara batuko den oinarri zabal bat edukitzeko.

Nolanahi ere, Abu Ali Mustafa brigadek, Herri Frontearen beso armatuak, Gazan borrokan parte hartzen dute, sionistekiko konfrontazio guztietan beti egin ohi dutenez. Fatah-ren elementu batzuek ere hartzen dute parte. Borroka egin nahi duen jendea da.

**Desadostasunetatik haratago, beraz, erresistentzia osatzen duten faktzioen arteko koordinazioa dago.**

Gazan blokeoa hasi zenetik eta Hamasek gobernatzen duenetik, urteekin antolakuntza kabinete bat osatu dute. Gazan ordezkaritza duten hamaka alderdiak biltzen dira hilero gai politiko eta administratiboez hitz egiteko. Jakina, Hamasek pisu handiagoa du, gehiengo baitu. Baina Jihad Islamikoa ere ari da parte hartzen, Herri Frontea, Askapenerako Frontea... Eta eraso militarrik daudenean, beso armatuak elkartzen dira erresistentzia antolatzeko. Alderdi politikoetatik, bospasei dira beso armatuak dutenak, eta gainera, Hamasekin



zerikusirik ez duten milizia batzuek ere hartzen dute parte.

**Behin baino gehiagotan galdetuko zizuten urriaren 7ko erasoari buruz eta ea gaitzesten duzun. Beste era batera planteatuko dizut: helburuak justifikatzen al ditu bitartekoak?**

Milaka tona bonba botatzen dituzte ospitaleetara, ikastetxeetara, 17 urtez se-tiatutako aire zabaleko kartzela batera, sarraskitu egiten gaituzte... Zer helburuk justifikatzen ditu bitarteko horiek? "Hamaseko miliziekin amaitzeak"?

6.000 pertsona baino gehiago ditugu Israelgo kartzeletan, horietako asko gai-xo. Adibidez, Walid Daqqah, Palestinako ezkerreko buruzagi bat, minbizi terminala du eta arreta mediko espezializatu behar du. Zigorra beteta izan arren ukatu egiten diote. Haurrak dituzte espetxeetan sartuta, tortura sistematikoa da, koloniak sortzen jarraitzen dute, Al-Aqsako meskitako erasoaldiak, Jerusalemgo kristauen aurkakoak... Erresistentziak aspaldi ohartarazi zuen egoera jasanezina zela eta ondorioak izango zituela. Eraitza urriaren 7an Gazatik gertuko kolonia batzuei egindako eraso da. Eta ez dezagun ahaztu, Gazako hesiaren beste aldeko lur horietan orain koloniak daude, baina Gazako Zerrendan bizirik dirauten errefuxiatuen lurra dira. Kolono horiek axolagabe bizi dira, parez pare edukita bi milioi eta erdi pertsona giltzapean, baldintza penagarrietan.

**Ustekabea izan zen guztientzat.**

Eraso horretan erresistentziaren helburua zen ustekabea sartu eta militar eta kolono batzuk bahitzea, ondoren trukerako txanpon gisa erabili eta preso palestinarrak askatzeko. Baina militar israeldarren erreakzioa uste baino askoz ere motelagoa izan zen, eta jende

“ ”

**“Okupaturiko herriek iniziatiba hartu eta okupatzaileari eraso egin diezaiokete, hori da erresistentzia palestinarrak egiten duena”**

asko eraman zuten. Azpimarratu behar da, halaber, kolonietako ekintza armatu horretan hil zirenetako asko Israelgo armadak berak hil zituela, zerutik tiro eginez mugitzen zen guztiari.

Baina kasu zehatz horretatik harago, Nazio Batuen ebazpen ezagun batek dio okupaziopean dauden herriek defentsarako eskubidea dutela, indarkeria armatua barne. Okupatzaileen erasoan aurrean defendatzeko aukera baino harago doa eskubide hori: okupaturiko herriek iniziatiba har dezakete eta okupatzaileari eraso egin. Horixe egiten du erresistentzia palestinarrak.

**Erresistentzia palestinarrak urriaren 7ko eraso egiteko arrazoietakoa bat izan liteke azken urteetan hainbat herrialde arabiarrekin – Bahrain, Egipto, Maroko, Saudi Arabia... – Israelen sustatutako normalizazio-prozesua geldiaraztea.**

Kalkulatutako data izan da. Lehenik eta behin, okupaturiko Palestinako egoerak okerrera egin du esponentzialki azken urteotan eta erresistentziak ohartarazita zuen erantzun egingo zuela Israel gelditzen ez bazen. Hala gertatu da. Bigarre-

nik, Gazako blokeoa mahai gainean jarri nahi zuten. Blokeoak 17 urte daramatza eta inork ez zuen horretaz hitz egiten. Eta, hirugarrenik, diozun bezala, Saudi Arabia Israelekin sinatzeaz zegoen normalizazio prozesua gelditzea lortu dute. Saudi Arabiak garrantzi handia du, ez bakarrik eskualde arabiar osoan, baita mundu musulmanean ere.

Begira nolako erreakzioa izan duen Turkiako Gobernuak. Erakunde sionistarekin harreman diplomatiko eta ekonomikoak erabat normalizatuta dituen herrialdea da, maniobra militar bateratuak ere egiten dituzte. Kalkulu eta interes politiko hutsa da, Erdoganeke badaki bere biztanleriaren gehiengoa Gazako sarraskiaren aurka dagoela erabat. Bahrain-ek Israelekin normalizazio akordioak sinatu ditu, baina orain enbaxadorea erretiratu du. Marokon ere manifestazio masiboak daude. Israelekin zuzenean kolaboratzen jarraitzen duen bakarra –eta AEBekin, jakina– Arabiar Emirerriak dira. Negozioak lehentasun dira han.

Erresistentziaren erasoak eta Israelen ondorengo sarraskiak hankaz gora jarri dute akordio horien prozesua.

**AEB, Frantzia, Alemania, Britainia Handia... Israelgo genozidioaren sustatzaile eta justifikatzaile nagusiak bi estatuen irtenbidea behin eta berriz proposatzen duten berberak dira. Euskal Herriko alderdi politikoien artean ere bide hori da nagusi.**

Hori baita posturarik errazena. Erantzukizuna gainetik kentzeko modu bat da: "Hitz egin dezatela palestinarrak eta israeldarrek, eta konpon daitezela". Ni irtenbide horren aurka nengoen eta nago.

Beraiek badakite ez dela bideragarria. 30 urte daramatzagu bi estatu horien zain. Ez diote Israel lurralde pales-

**3. FINALAURREKOA**  
**AZAROAK 25**

Aissa Intxausti Aburruza, Ibai Amillategi Omaetxebarria, Josune Aramendi Perez, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Bartra Arenas eta Onintza Enbeita Maguregi.  
Gai-jartzailea: Idoia Anzorandia Kareaga.

**LEMOA** UDAL KIROLDEGIA. 17:00

**BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2023**

[www.bertsosazale.eus](http://www.bertsosazale.eus)  
[www.bertsosarrerek.eus](http://www.bertsosarrerek.eus)

Antolatzailea: Babesleak: Logurritzailea:

tinarrean egoteari uko egin nahi, Israel Mendebaldearen parte delako eta beren interesak defendatzen jarraituko duela. Ez dute deskolonizazioaz entzun ere egin nahi.

Palestinaren kolonizazioa Mendebaldetik programatu eta antolatu zen. Juduen aurkako genozidioaz ez ziren arduratu, ez zieten beren jatorrizko lekuetara itzultzeko (Alemania, Frantzia, Ingalaterra, Ukraina, Polonia...) eskubiderik, babesik eta erraztasunik eman. "Arazoa" Palestinara eraman zuten, pertsona juduak Europatik kanporatu zituzten, Palestinara, eta Nazio Batuetan lurraldea zatitzea eta juduentzako estatu baten sorrera erraztea erabaki zuten. Hori guztia Mendebaldearen ardurua da. Erantzukizuna ukatu eta beren burua nolabait zuritzeko, Israelgo Estatuaz eta estatu palestinarrak hitz egiten dute. Nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak – palestinarentzat historikoki bidegabeak izan direnak, banaketatik hasita – betetzearekin egiazki engeiatuta baleude, lehenik eta behin 194. artikulua aplikatu beharko lukete: itzultzeko eskubidea. Orduan errefuxiatu palestinarrak guztiak beren jatorrizko herrietara itzuli beharko liriateke, baina badakite hori Israelgo Estatuaren amaiera litzatekeela. Era berean, pertsona orori eskubide berberak emanda, apartheidia eta Israelgo Estatuak, orain ezagutzen dugun moldean, bukatuko liriateke. Baina ez. Bi estatu proposatzen dituzte. Batentzat lapurtutako lurraldearen %80, eta besteentzat, palestinarrentzat, %20.

Bi estatuen irtenbidea da palestinarrei "molda zaitezte nolabait" esatea. Baina, hala ere, hori bada benetan nahi dutena, utz diezaiotela Israel armatzeari, finantzatzeari eta laguntzeari. Ez daitezela partzialak izan. Eta hori egiten dutenean, orduan, lasai, gu geu moldatuko gara eta.

### **Egoera makur honen aurrean, palestinarrak herriarekiko elkarrizketa abstraktutik harago, zer egin dezakegu hemen eta orain?**

Genozidioa ez bada gelditzen, desobediencia zibilera jo beharko genuke. Ildo horretan, Espainiako Estatuan Mozal Legeak indarrean jarraitzen du, eta horregatik eskatu behar zaio gobernu berriari behingoz indargabetzeko.

Gobernuek "aski da!" dioten jendea entzun gabe jarraitzen badute, haiek dauden lekura joan beharko dugu: au-



Erresistentzia palestinarrarekin elkartzunez, Bilbon urriaren 28an manifestazio jendetsua egin zen.

tonomia erkidegoetako gobernuen egoitzetara, aldundietara, alderdi politikoan egoitzetara, udaletxeetara... Beren atea jo behar dugu neurri zehatzak har ditzaten eskatzeko, berehala.

Espainiako Estatuaren kasuan, gainera, badirudi pozik egon behar dugula manifestatzen uzten digutelako, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen dena ikusita.

### **Eta Israelekin harremanak etetea? Armak emateari uztea?**

Armamenturik ez ematea gutxienezkoa da, eta Espainiako Estatuak arma-merkataritza handia du Israelekin.

### **Ba al dago ezkerrik Israelen?**

Etiketak jartzea oso erraza da. Ezkerrekoa izatea herrien eskubideak eta autodeterminazio eskubidea defendatzea da, ala ezkerrekoa izatea beste herri bat kolonizatzea da, zure estatua sortzeko? Ez, ez dago Israelgo ezkerrik. Ezkerrek ezin du sarrasketan oinarritutako estatu bat defendatu. Ezkerreko pertsona batek ezin du herri baten inbasioa justifikatu, erlijioan oinarrituta. Israelgo Estatuak sortu zen juduen erlijioak eta bere jarraitzaileek Palestinan estatu bat izateko eskubidea dutela argudiatuta. Ezin da ezkerrekoa izan eta estatu batek juduentzat bakarrik izan behar duela defendatu. Israelgo ezkerrek demokrazia eta eskubideak defendatzen ditu, baina israeldarrentzat bakarrik.

### **Beste era batera esanda, ba al dago kolono anticolonialistik?**

Hori da. Eta ez dezagun ahaztu, adibidez,

Sabra eta Shatilaren sarraskiak gertatu zirenean, Israelen agintzen zuena "ezkerreko" gobernu bat zela.

### **Palestinako erakunde politikoei eta haien beso armatuen ordezkariak begiratzen badiegu, gizon korbata-dunak, gizon armatuak, gizon diplomatikoak... ikusiko ditugu.**

Emakumea beti izan da erresistentzia palestinarraren partaide. Harrigarria egin daiteke, baina Hamasek berak Palestinako ezkerreko beste alderdi batzuek baino emakume militante gehiago dauka. Diputatuak dituzte, talde armatuetan daude, Hamasen Polizian...

Hamaseko emakume askorekin izan dut harremana, eta esan dezaket ahaldundutako eta prestatutako emakumeak direla. Jihad Islamikoko preso politiko Jader Adnan maiatzean hil zen gose greban eta bere kasuaren defentsarik handiena bere emazteak eraman du: katean manifestatu da, hedabideetan hitz egin du... eta erabat estalita dagoen emakumea da. Guk geuk elkarrizketatu dugu. Mendebaldeko munduak ikusi nahi ez duen emakume mota bat da. Ez du estalitako emakumea ikusi nahi, are gutxiago ahaldunduta badago. Irudiak emakume otzanarena behar du izan.

Baina argi dago gizonak direla herri-tarrak ordezkatzeko eta publikoki hitz egiten ateratzen diren gehienak. Inor ez dago patriarkatutik salbu. Hori aldatzeko borrokan ari gara Palestinako emakume feministak eta ezkerreko emakumeak. Guk, diasporatik, Masar Badil mugimenduaren sorrerako gutunean bertan esan dugu mugimendua emaku-



meek gidatu behar dutela. Ez gara kuotez edo emakumeen partaidetza handitzeko neurriez ari. Ez. Lidergoak emakumeena izan behar duela diogu, baita gazteena ere. Izan ere, Palestinaren izenean hitz egiten duten gehienak 70 urtetik gorako gizonak dira. Non dago Palestinako gazteria, biztanleriaren ia %70?

Mendebaldeko hedabideek ez dute erresistentzia palestinarreko ordezkariekin hitz egiten, Mahmoud Abbas eta bere lobbya elkarrizketatzen dituzte, baina erresistentziarekin inork ez du hitz egiten. Bitxia bada ere, erresistentzian askoz ere gazte gehiagok hartzen du parte Fatah, Herri Frontea edo Fronte Demokratikoa moduko alderdi politikoetan baino.

**Desberdintasun politikoez harago, gaur egun palestinar gehienak batzen ditu erresistentziaren aldeko jarraitzaileak. Baina Mendebaldean Palestinari elkartzuna adierazteko egiten diren manifestazioen aldarrikapenak lausoagoak dira eta askok erresistentzia ez dute aipatu ere egiten.**

Hori supremazismo zuri eurozentrista da. Mendebaldetik "gure" eredu in-

posatu nahi dugu. Ezkertiarrok herrien borondatea eta haien askapen mugimenduak errespetatu behar genituzke. Erresistentzia palestinarra askapen mugimendua da, gehiago ala gutxiago gustatu dakiguke, baina herriak aukeratu duena da eta erresistentzia horrek gehiengoaren babes du. Vietnamgo erresistentzian segur aski ezkerreko mugimenduak ziren nagusi, baina eskuinteko jendea ere bazegoen. Eta, jakina, lagundu egin behar zitzaie. Afrikako askapen nazionalako mugimenduak ezkerrekoak izan al dira? Ez, baina lagundu egin behar zaie.

Ezkerreko jendeak Palestinako ezkerreko laguntza eman diezaiokegu, hazi eta eragin handiagoa izan dezan, baina ezin dugu ezer inposatu. "Islamistak eta eskuindarrak direnez, eta gu ezkerrekoak, ezin diegu babesik eman" esatea, gainerakoak baino hobekak garelako pen-tsatzea da.

**Indarkeriak eta borroka armatuak beti sortzen dute eztabaida.**

Munduko herri guztiak, gustatu ala ez, borroka armatuaren bidez askatu dira. Ez dago herri bat askatua izan dena ko-

lonizatzailea egun batean esnatu, eta konturatu delako etika duela eta zapalduak bakean bizitzen uztea erabaki duela.

Nahiago nuke borroka egin behar ez bagenu, jende asko hiltzen ari baita. Egia da prezioa handia dela, baina ez zegoen beste modurik, kausa palestinarra ahazten ari zelako, sionistek beren irudia garbitzen eta normalizatzen zuten bitartean. Israelek egiten duena egiten du zigorgabetasunaz jabe delako eta Mendebaldeko botere politiko, mediatiko eta ekonomikoaren baldintzarik gabeko babes duela delako. Baina herrien isiltasunak ere bermatu izan du. Palestinar herriaren sarraskia etengabea eta su motelean egindakoa da. Egunez egun eta urtez urte. Kolonoek Jerusalem 16 urteko mutil bat erre zutenean, Mohammad Abu Khadir, gasolina edanarazi eta ondoren su eman ziotenean, jendea ez zen mugitu. Kasu hori Israelen ohikoa da, palestinarra zelako ez da ezer gertatzen. Baina, nazioartean? Ez zen ezer esan.

Ez da onargarria palestinarrei eskatzea borroka armaturik ez egitea, hil egiten gaituztelako. ●

**Euskararen Kriseilua**  
Itsas Etxea auditoriumean  
Abenduaren 1ean  
18:00-19:30

ANTOLATZAILEA:  
Hondarribiko Udala

LAGUNTZAILEA:  
ama guadelupekoa ikasbetea

egiluze

TALAIA

Azaroan zehar,  
Hondarribiko 4-8 urte  
arteko umeen etxeetan  
barrena dabil su bizi eta koloretsu hau!

[hondarribia.kriseilua.eus](http://hondarribia.kriseilua.eus)

# Gazan ehortzi diren amets geopolitikoak


 MIKEL ARAMENDI

Hutsegitea pertsonalizatzea beste huts bat egitea izango litzateke. Baina hilobiraino, eta harago ere bai, eramango du bizkarrean Jake Sullivan, Joe Biden AEBetako presidentearen Segurtasun Nazionalako aholkulariak, irailaren 29an *The Atlantic Festival* ekitaldian esan zuena: “Ekialde Hurbileko eskualdea joandako bi hamarkadatan baino lasaiagoa da gaur egun”. Astebete geroago, urriaren 7an, Gazako triskantzara oraindik hastapenetan zegoenean, iruzkin luze-zabalaren lerroburura eraman zuen esaldia *The Atlantic*-ek bere webgunean, ametsetan aditutako zer-bait ez zela izan berresteko-edo.

Ez, ez zen anekdota. Asko hitz egin da –eta gehiago egin beharko dute gerraosteko Israelen–, urriaren 7aren atarikoez. Baina, orain arte isilagoan joan bada ere, koska bat goragokoa da AEBetako. Munduko pertsonarik informatuena zen –edo izan behar zukeen– Sullivan. Egungo lehen potentziak dituen dozena eta erdi informazio- eta inteligentzia-zerbitzuen lanaren azken piramide-erpina eta, zerbitzuen arteko liskarrak eta azpikeriak gorabehera, oldozpen gutzia presidenteari xehe jakinarazteko ardura duena.

Are gehiago, “jakite” horren gainean eraiki behar dira, jarraian, kanpo-politikako estrategiak eta egitasmoak, batik batik, Estatu Idazkaritzak landuko dituenak. Beraz, kate luze baten azken begia, eta soka luze bati eusten zion iltzea zen Sullivanen hutsegite hura. Munduko lehen potentzian, egin kontu.

Zalantzarik ez dago, bestalde, Sullivanen iraileko hitz haiek Bidenen ad-



ministrazioaren une hartako ikuskera islatzen zutela bete-betean. Ez ziren ebaluazio edo gogoeta pertsonalak, ez eta pasadizoko ateraldiak. Hitz bakarrean laburbil zitekeen egitate hori: “Korridorea”.

## HAINBAT ARAZOREN SOLUZIOA

Hilabetetan diskrezioz landuta, irailaren 10ean sinatu baitzen, New Delhiko G-20 goi-bilkuraren gerizpean, IMEC *India-Middle East-Europe Economic Corridor* egitasmoa. Komunikazio- eta garraio-lotura (zuntzez, trennez, itsasoz, errepidez) erraldoi baten proiektua, Ekialde Ertaina masa-zentro zela.

Adierazpen ofizialak zioenez, eko-

nomiaren garapena indartu nahi zuen Korridoreak, Asia, Persiar golkoa eta Europaren arteko konektibitatea eta integrazio ekonomikoa sustatuta; eta Indiatik Europaraino helduko omen zen, Arabiar Emirerrietatik, Saudi Arabiatik, Jordaniatik, Israeldik eta Grezitik igarota. Ozenki esaten zenez, AEBek hauspotuta, Txinaren BRI edo *zeta*ren bide berria-rekin lehiaztera zetorren; eta ezkutuagoan, igarri zitekeen Suezko kanalar ezinbestekotasuna kentzera ere baietz.

Korridorearen sustatzaileen zerrenda bezain adierazkorra zen ageri ez zirena. Asia Hegoaldean, India bai, baina Pakistan edo Bangladesh ez; zergatia,



ez da igargaitza. Ekialde Ertainean, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak eta Jordania bai; baina Iran, Oman, Qatar, Bahrein, Kuwait, Irak, Siria, Yemen... eta Egipto ez. Eta Israel eta Grezia bai, baina Turkia ez. Baina ez zen haiek ere gonbidatu arren ezetz esan zutelako, Erdoganek bederen argi azaldu zuenez.

Ez da bereziki bizkorra izan behar ohartzeko Korridore horrek, funtsean, bi erregai-merkatu handirekin –India eta Europarekin– lotuko zuela Saudi Arabia; baina bidearen langak Emirerrien eta Israelen eskuetan utzita. Eta AEBek, Blinkenek zehatzago, zirkularen koadratura lortzen zutela hartara, Afganistango erretirada makurra estali eta Bzerzinskiren doktrina eurasiar zenuaren osoko zuzenketa abian jarrita.

Soluzio bakarraren bitartez, bere kanpo-politikaren arazo mordoa konponzen zituen Washingtonek: Txinarekiko lehian tanto potoloa egitea; India Mendebaldeko munduarekin lotzea, Indopazifikoko erretolikena baino sendotasun gehiagorekin; Iran eta Errusia eta haien sateliteak isolatzea eskualdean; Europari errusiar erregaien ordezko zerbait oparitzea, baina kontrola hirugarrenen eskuetan dela; Turkia eta Egipto bezalako aliatu aldaberak erasiatzea... Baina, batez ere, Israelen missus dominicus-tasuna berrestea Ekialde Ertainean, Saudi Arabiaren alboan itsatsita.

Egitasmoaren onezia hain zen paregabea ezen etxean bertan, AEBetako sesiotegian ere, nekez izango baitzuen areriorik: Abrahamen Akordioen jarraipen argia zen Korridorea, Trump gorabehera.

Zerk egin duen huts?  
Agerikoa denez,  
palestinar auzia bere  
horretan, konponbide  
itxurarik ere gabe,  
amortizatutzat jotzeak;  
eta, bide batez, hark  
mundu arabiarrean,  
musulmanean eta  
Hegoalde osoan duen  
itsasmena gutxiesteak

### ESNE-SUILA

Esne-saltzailearen suila urriaren 7an joan zen lurrera Gazan. Eta harez gerotik txiki-txiki egin du bonbapean Mediterraneo ekialdean AEBek beraiek hamarkadatan hazi duten Leviatan kontrolaezin horrek.

Zerk egin duen huts? Agerikoa denez, palestinar auzia bere horretan, konponbide itxurarik ere gabe, amortizatutzat jotzeak; eta, bide batez, hark mundu arabiarrean, musulmanean eta Hegoalde osoan duen itsasmena gu-

txiستهak. Baita horren ifrentzua litzatekeenak ere: Israelen naturaltasuna lortzen joan den basatikeria instituzionala, inor ez ezer errespetatu gabe berea egin dezakeela aritzea, bidegabea ez ezik bide-suntsitzailea dela jabetu nahi ez izateak. Baina horiek guztiak Mendebal-zentrismoaren aspaldiko taktak dira.

Eta ez da espero behar sakoneko aldaketarik. Are gutxiago alderantzizkaterik. “Gazaren etorkizuna aurreikusit” asmoz gure artean argitaratzen hasi diren burutapenek garbi erakusten dute, ia salbuespenik gabe, arazoan giltzarriak ez direla ukitu nahi Mendebaldean, eta iraganaren argazki tuneatua bailitzan aurreikusit nahi dela etorkizuna. Hori bai, Korridorerik gabe.

Ekialde Ertaineko errealtatean, ordea, berrikuntzak hasi dira islatzen jada: Saudi Arabia eta Iranen arteko ententea, sinesgaitza oraintsu arte, baina orain aibatitxi txinatarra gabe ere funtzionatzen hasia diruena; Erdoganen neo-otomanismoa, kemalismoa ehortzi eta Europari behingoz bizkarra emateko edo; Hezbollahen “herri-armatuen” estrategia, Hamasekin edo Hamasik gabe...

Lehen apenas begizatzen zen laino beltz bat izango da, gainera, Ekialde Ertaineko zerumugan hemendik aurrera: arma nuklearren hodei beltza. Eliyahu kirtinak eren esan izan ez balu ere, hor izango zener mamua; baina orain, eskualdeko ahaltsuenek Gazatik eratorriko duten ikaskizuna hortik joango dela apustu egin daiteke.

Uste asko ehortzi baitziren urriaren 7an. ●

**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

Antolatzailea

Laguntzailea



**FINALA**  
**IRUÑEA**

Abenduak 2, larunbata

17:00etan, Anaitasuna Kiroldegian

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai

[www.bertozaile.eus](http://www.bertozaile.eus)

## Bi estatuen irtenbidearen aurrean

# ESTATU DEMOKRATIKO BAKARRA PALESTINAR ETA JUDUENTZAT

“Betirako gatazka”, “gerra amaiezina”, “konpenezina”... Hori da Israelgo Estatuaren eta palestinarren arteko gatazka historikoaz Mendebaldeko iruditeriak eraiki duen irteera gabeko labirinto interesatua. Eta, kasurik onenean, “bi estatuen irtenbidea dago”, Palestina batetik, eta Israel bestetik, 1948an NBEk finkatu zuen gisan. Baina irtenbide horren porrota gero eta agerikoagoa da, eta gero eta indar handiagoz ari da zabaltzen estatu demokratiko laiko bakarraren aterabidea.

 XABIER LETONA BITERI

**B**i estatuen proposamena apurka ari da odolusten azken 75 urteetan, nagusiki Israelgo Estatuak ez duelako inoiz sinistu hartan eta NBEk ere ez duelako indarrik izan hura inposatzeko; besteak beste, AEBak buru, Mendebaldeak “Asiako barbaroen aurkako” harresi gisa erabili izan duelako estatu sionista. Sionismoaren sortzaile Theodor Herzl-ek estratatega ikuspegi ona erakutsi zuen 1896an juduen nazio berria Europa Asiatik babesteko harresi moduan irudikatzean: “Zibilizazioaren postu aurreratu bat basakeriaren aurrean. Eta estatu neutral gisa, Europak gure existentzia bermatu beharko luke”.

Arabiarrentzat eta juduentzat estatu bakarra sortzea proposatu zuen NBEk 1947an, baina sionismoak uko egin zion horri, eta AEBek eta Sobietar Batasunak berehala inposatu zuten bi estatuen ideia, Josep Fontana historialariak *Por el bien del imperio* (Inperioaren onerako)

liburuan azaltzen duen moduan. Juduak biztanleriaren %33 ziren eta lurraldearen %6 zuten orduan, baina lurraldearen %56arekin geratuko ziren eta ia milioi erdi palestinarrek lurraldearen %42arekin, eta gainera lurrik eskasenekin. Jordania eta Israelen artean kudeatuko zuten Jerusalem arantzatsua.

Palestinarrek ez zuten zatiketa onartu, eta sei hilabeteko gerra zibil oso desorekatuaren ondoren –besteak beste, Josif Stalinen SESBek Israeli saldutako armengatik–, Ben Gurionek Israelgo Estatu aldarrikatu zuen 1948ko maiatzaren 14an. Bost estatu arabiarrek gerra deklaratu zioten Israeli, baina horiek ere aise gaindituta, arabiar eta juduentzat izan behar zen lurralde osoa bere burujabetzapean jarri zuen Israel. Porrot hori izan zen palestinarrek *Nakba* gisa ezagutzen duten “hondamena”, eta haren ondorioz, Israelek 750.000 palestinar kanporatu zituen beren lurretatik. Horra arabiar eta juduentzako estatu

bakarraren lehen lurperatzea, eta NBEren bi estatuen proposamenaren hastapeneko urratsak.

Israeliek gupidarik gabe jarraitu zuen palestinarren lurren kolonizazioarekin eta 1967ko Sei Egunetako Gerran, teoriarik palestinarren lurrak ziren Gaza eta Zisjordania bereganatu zituen, Egiptoko Sinai eta Siriako Golaneko gainekin batera. Harrezkero, haietatik erretiratzeke behin eta berriz eskatu dio NBEk hainbat ebazpenen bidez, baina Israeliek –salbu eta 1980an, Sinaiko basamortua Egiptori itzuli zionean– beti egin dio muzin eskaerari.

Gada Kharmi Londresen bizi den idazle palestinarren esanetan –*Estatu bat. Etorkizun demokratiko bakarra Palestina-Israelentzat* liburuaren egilea da–, estatu laiko bakarraren ideia Palestinaren Askatasunerako Fronte Demokratikoak luzatu zuen 1969an. Palestinaren Askatasunerako Erakundeak (PAE) zen talde hura eta Palestina-



# PALESTINA UZKURTZEN ISRAEL ZABALTZEN



## VISUALIZING PALESTINE

WWW.VISUALIZINGPALESTINE.ORG, 2015 MAI

Argia: ARGIA Visualizing Palestine es da jeneratza Argia.comtik iragarritako dokumentu bat da.

@visualizingpalestine  
fb.com/visualizingpalestine



ko Kontseilu Nazionalak proposamena bere egin zuen urte hartako kongresuan. Idazlearen esanetan, aldiz, inoiz ez zuen izan arrakastarik, ez israeldarren ez palestinarren artean, eta apurka ezerezean gelditu zen. 1974tik aurrera, deskolonizazioaren eta herrien autodeterminazio eskubidearen testuinguru indartsuan, palestinarren artean ere bi estatuen ideiak indarra hartu zuen. Hari horretatik tiraka iritsi ziren Osloko Bake Akordioak bi hamarkada geroago.

### OSLOKO BAKE AKORDIOETATIK HAMASERA

Israelek eta PAEk 1993an sinatu zituzten Osloko Akordioak eta haiek ekarri zuten Palestinako Aginte Nazionala. Autonomia maila batekin, hark kudeatuko zituen Gaza eta Zisjordaniako lurraldeak. Etorkizuneko estatu palestinarren ernamuina zen. Akordioak, baina,

kanpo uzten zituen palestinarrentzat giltzarri diren bi gai: batetik, ehunka mila errefuxiatu palestinarrek ez zuten eskubiderik izango euren lurraldeetara itzultzeko; eta bestetik, Israelgo kolonoek jarraitu ahal izango zuten 1948tik aurrera etengabekoa zen kolonia juduen eratzearekin, NBeren arabera horiek legez kanpokoak izan arren.

Palestinarrak halaberrez heldu zioten Osloko aukerari. Errefuxiatuen eta kolonoen gabeziez gain, Israelek Palestina historikoaren lurraldearen %22 bakarrik utzi zien: Gaza eta Zisjordania, biak Israelek guztiz kontrolatutako errepide batez lotuak. Ez dugu sakonduko hemen Osloko Akordioen porrotean, baina Israelek ez du behin ere errespetatu sinatutakoa. Laborista israeldarrek bultzatu zuten Osloko bidea, eta 1993an Likudeko Benjamin Netanyahu lehen ministro izendatu zu-

tenean, ozen adierazi zuen eginahalak egingo zituela Osloko Akordioak ezerezean uzteko.

Aipatu behar da, halaber, AEBetako eta Europar Batasuneko estatu nagusien konplizitatea eta laguntza funtsezkoak izan direla Israelek horrelako inpunitatez jokatu ahal izateko. Osloren ondoren ere kolonizazioak aurrera jarraitu du etengabe, eta horrek behin eta berriro sumindu ditu palestinarrek. Umiliazioa borobiltzeko, Israelek bere meneko bihurtu du Palestinako Aginte Nazionala, eta instituzioaren zilegitasuna hutsala da gaur egun palestinar gehienen begietara. Eta zilegitasun demokratikoa ere bai, 2006tik ez baita egin palestinarren hauteskunderik. Oslo ondorengo lokatz horietan sortu eta garatu da Hamas, gaur egun erresistentzia palestinarren irudi bilakatu dena.



Israelgo Estatuaren sorrera ekitaldia eta Ben Gurion aldarrikapena irakurtzen. Horretarako 700.000 kanporatu zituzten haien lurretatik, Nabka ezagunean.

### OZTOPORIK HANDIENA: 600.000 KOLONO

Israelek defentsa eskubidea du, eta egoera baretzen denean, berriro serio heldu behar zaio bi estatuen irtenbideari. Hori da egunotan, haien jarduna zuritzeko balizko konponbideei buruz Mendebaldeko potentzien artean nagusitzen den diskurtsoa. Bi lurralde, bi herri, bi estatu. Logikoa dirudi eta urte luzez ondo ikusia izan da mundu zaballean –oraindik Zisjordaniako palestinarren herenak sostengua ematen dio, irailean egindako inkesten arabera–, baita palestinarren aldeko herrialde eta mugimendu askotan ere. Orain arteko lorratzak, ostera, argi erakusten du proposamenak etengabe egiten duela okupazioaren alde eta palestinarren aurka. 2012tik Palestina NBEko kide-behatzailea ere bada, 139 herrialdek estatu gisa onartzen dute, baina horrek ez dio ezertarako balio.

Egiazki, borondaterik onenarekin ere, gaur egun ez da posible bi estatuen irtenbidea: zer egingo litzateke Zisjordania diren 600.000 kolono israeldarrek? Posible izan zen Gazako kolonoen asentamenduak desegitea, baina han 8.000 bat kolono besterik ez ziren, eta 2005ean haietako azken kokalekua desegin zenean, Israelgo eskuinak eta eskuin muturrak munduaren amaiera irudikatu zuten. Pentsa zer litzatekeen Zisjordaniako kasuan.

### APARTHEIDA EZKUTATZEN DENEAN

Gero eta palestinar gehiagorentzat, beraz, bi estatuen aterabidea haiek bizi duten apartheidak ezkutatzeko eta egungo egoera koloniala egonkortzeko formula bilakatu da. Nazioarteko legediak gogor gaitzesten duen bazterketa sistema da apartheidak, baina azken hamarkadetan Israelek hura zorrotz besterik ez du egin. Gero eta gehiago aldatzen da palestinarrek lurralde okupatueta bizi duten egoera, eta beltzek Hegoafrikan bizi izan zutena.

Nazioartean gero eta zabalduago dago ikuspegi hori, eta hala ziurtatzen duten txostenak ere ugaritzen ari dira. Amnesty Internationalek, Human Rights Watchek, edo bestelako erakundeek hainbat argitaratu dituzte azken urteetan. Horien artean sendoenetakoa da Mendebaleko Asiako Talde Ekonomiko eta Sozialak –NBERen menpekoa da berau– 2017an argitaratu emandakoa: 75 orrialdeko txostenean, Richard Falk eta Virgini Tilley unibertsitateko irakasle eta ikertzaile estatubatuarrek Israelgo apartheidak sakon deskribatu zuten. Haien esanetan, “Israel apartheid krimenaren errudun dela esateko frogak oso sendoak daude... baina horrek ondorioak izateko, autoritatea duen nazioarteko auzitegi batek esan beharko luke hori. Edozein atzerapenek palestinarren mendekotasuna luzatzen du

eta horrek krimena areagotzen du (...) Beraz, humanitatearen aurkako krimen hori amaitzeko, ezinbestekoa da azkar aritzea”.

Mendebaldeko estatu handiek, ordea, ez dute inongo apartheidik ikusten, eta eskubide urraketak salatzen direnean, gerra testuinguruak egoera horiek dakartzala esanda zuritzen dute; alde bietan daudela eskubide urraketak. Donald Trump AEBetako lehendakari ohiaren 2020ko bake plana izan zen palestinarren bazterketaren azken kapitulu diplomatikoa. Ez dugu hilda jaiotzen plana lerrootan xeheko, baina hura aurkezteko Trumpek eta Netanyahu Etxe Zurian –palestinarrik gabe– egindako aurkezpenean azken horrek esandakoa aski izan daiteke planaren nondik norakoez jabetzeko: Netanyahu Jordan bilarako eta Zisjordaniako kokagune juduak bere egingo zituen berehala, eta konpromisoa hartzen zuen akordioak palestinarrei ematen zizkien lurretan ez zuela kolonia berririk baimenduko, gutxienez ondorengo lau urteetan.

### ZERTAN DA APARTHEIDA?

Nahi duenarentzat oso ezagunak dira Israelgo palestinarrek bizi dituzten eskubide urraketak, urtez urte jarraitu daitezke hainbat hedabidetan. Handienetan, ordea, eskubide zapaltze horiek gerraren ondorioak dira, eta beraz, ez apartheidak ekarritakoak. Amnesty





tuetan. Gaza eta Zisjordania Israeetik banatzen dituzten harresiak dira bazterketaren ikur nagusiak. Neurri batean, Israelgo herritar juduek gozatzan duten sistema liberal demokratikoak estaltzen du apartheid itogarri hori, baina gero eta gutxiago.

## BI ESTATUEN AUKERAK INDARRA GALDU DU

Azken hilabeteetan Israelen eta Zisjordanian egindako hainbat inkestean arabera, bi estatuen irtenbideak herritarren gero eta sostengu txikiagoa du bi eremuetan. AEBetako Pwe Ikerketa Zentroak irailean argitaratutako inkestaren erranetan, israeldarren %35ak sinesten du bi estatuen arteko elkarbizitza bake-tsuan.

Politikaren eta Inkesten Palestinako Ikerketa Zentroak sasoi berean argitaratutako inkestak zioenez, palestinarren %67k uko egiten dio bi estatuen irtenbideari, batez ere kolonoen kokalekuek ez dutelako halakorik ahalbidetzen. BBCK egindako elkarrizketa batean zera erantzuten du 17 urteko Janna Tamimi gazteak: "Eta non jarriko dira mugak?". Mugen harira, esanguratsua da Israelek oraindik bere estatuko mugak finkatu



Israelek 600.000 bat kolono ditu Zisjordanian eta argazkikoak moduko herriein lurralde osoa gazta baten gisa zultzen dute ehunka kokalekurekin.

barik dituela. Azken hogeitaz urteetan 18 eta 19 urte arteko iritziak aztertu ditu egoitza Zisjordanian duen zentroak, eta argi ondorioztatu du

bi estatuen irtenbideak gero eta sostengu gutxiago duela gazteen artean, eta aldiz, borroka armatuaren aldeko jarrerak gero eta sendoagoak direla. Eta Hamasen aldekoak ere bai.

Israelgo Estatuaren sorrera aldarrikapenean horrela zioen David Ben Gurion lehen gobernu buruak: "Israelgo Estatuak erabateko berdintasun politiko eta soziala bermatuko ditu, erlijio, arraza edo sexu bereizkeriarik gabe". Estatuaren sorrera bidean talde sionista-terroristek egindako sarraskiak edota ordutik gaur arteko kontuan hartuta, berba horiek hutsalak dira, baina egon hor dago gatazkaren irteeraren muina: eskubide berberekin, juduak eta palestinarrak hartuko dituen estatu laiko bakarra, zeinak izan dezakeen hainbat forma, legebiltzar bakarrarekin, edo egitura federal zein konfederatuarekin.

## HEGOAFRIKAKO BIDEA

Apartheid delat eta 1974ko azaroaren 13an NBetik kanporatu zuten Hegoafrika. Ordutik aurrera, herrialdea gero eta isolatuago geratu zen, besteak beste nazioarteko boikot kanpaina gogorra tartean, ekonomian eragin handia izan zuena. Azkenean, bake prozesu

konplexuaren ondoren, 1994ko apirilaren 27an egin ziren lehenbiziko hauteskunde demokratikoak herrialdean. Hegoafrikak ere 1948an finkatu zuen legez apartheid, aurreko zapalkuntzari estalpe juridikoa emanda.

Ia mende erdi behar izan zen apartheidaren erregimena lurperatzeko, eta nazioarteko presioa funtsezkoa izan zen horretan. Horregatik, gero eta aktore gehiagoren arabera, bada ordua Ekialde Hurbilean ere bide berari ekiteko, baina horretarako bi estatuen proposamena baztertu behar da, soilik horrela ikusiko baita argi lurralde bakarra, estatu bakarra, non Israelgo Estatuak apartheidaren bidez palestinarrak baztertu eta zapaltzen dituen.

Ezin da ukatu gatazka luze honetan ia saihetsezina dela tunelean irtenbiderik ez ikustea. Kontua, ordea, zera da: etorkizunari begira irtenbide gisa zer elikatzen den, edo apartheid ezkutatzen duen bi estatuen irtenbidea, edo palestinarrak eta juduak bilduko dituen estatu laiko demokratiko bakarra, edozein formulaziopean egituratuta. Lehenak 75 urte ditu, eta ondorioak bistan dira, ez da posible izango israeldarrek bakean bizitzea, horretarako palestinarrak zapaldu behar badituzte. Bigarrena irudikatzea ia ezinezkoa da gaur egun, baina bi herriei bake justua eskaintzen dien ate bakarra da. ●

**bagera**  
Donostiako  
Euskaltzaleen Elkarte  
**guk**  
nark bestela?  
www.bagera.eus  
bagera@bagera.eus  
943 005 074

**MARCOS**  
okindegia  
**Benetako  
antzinako ogia**  
© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)



**VITORIA  
GASTEIZ**  
green capital

Ezagutu berde izateaz harro dagoen  
hiri bat. Ibiltzera, paseatzera...  
gonbidatzen zaituen hiri bat.  
Ikusi beharreko hiri bat,  
eskaintzeko asko duena.

Etorri Gasteizera.

# I VITORIA- GASTEIZ



[vitoria-gasteiz.org/turismo](https://vitoria-gasteiz.org/turismo)



@turismovitoria



@turismo\_vitoria



Financiado por  
la Unión Europea  
NextGenerationEU



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE INDUSTRIA, COMERCIO  
Y TURISMO



Plan de Recuperación,  
Transformación  
y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
EUSKAL ERREPUBLICA  
ESTADO VASCO



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# Frantzia-Israel harreman estua: historian sustraiturikoa eta gaur egun berretsia

Gazan gertatzen ari den sarraskiari so egiterakoan, Frantziako Estatuaren kokapen politikoak arreta sortzen du, eragin dezakeelako Israelengan. Paris ez da Washington, baina harreman estua dauka Tel-Avivekin. Aspalditik, oinarritik eta erran dezagun premisatik: sekretupeko Sykes-Picot hitzarmena hor dago, Frantziak eta Erresuma Batuak 1916an izenpeturikoa eta Ekialde Hurbilaren banaketa koloniala adostu zuena. Urriaren 7az geroztik Parisek egindako adierazpenen eta ekimenen kontakizuna da hau, beti ere 1948az geroztik ukandako jarrera politikoari begira jarritz.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**A**rgazki ezohikoa genuen urriaren 12an Parisen: Frantziako Legebiltzarreko eta Senatuko presidenteen deiari erantzunez, antisemitismoaren aurka batu ziren 105.000 herritar hiriburuan –185.000 ziren Frantziako Estatuko martxa guztiak baturik-. Urriaren 7az geroztik eraso antisemitak emendaturik, “balore errepublikarrak” lehen lerroan jarri eta “batasunetik” erantzutea zuten xede. Oinarrian ekimena ohoragarria bada ere, eztabaida piztu du.

Hasteko, aspalditik delako giro islamofobia Frantzian, helburu elektoralistei segi botoak irabazteko bide emankor ere bihurturik denean. Direla meskiten kontrako erasoak, Palestinaren aldeko ekimenen aurkako eskuin-muturrekoen erasoak edota prefetaren debekatzeak, ala eguneroko irainak, islamofobiak gora egin du urriaren 7az geroztik, baina, salbuespenak salbuespen, ez du antisemitismoak duen arreta mediatikoa lortzen. Gainera, polemika areagotu du eskuin-muturra martxan egoteak. Hor zeuden ordezkari xenofobo ezagunenak: behin baino gehiagotan jarrera antisemitagatik epaituriko Fronte Nazionaleko (gaur egun RN Batasun Nazionala deiturikoa) Marine Le Pen eta Jordan Bardella, Reconquete alderdiko Marion Marechal eta Eric Zemmour –azken hori “musulmanen gehiegizko migrazioa” salatza etorri zen martxara-. Eskuin-muturren presentzia gogorki kritikatu arren,

bertan egoteko hautua lehenetsi zuten ezkerreko alderdi gehienek, hori bai, sinbolikoki eta politikoki “osasun-hesi” bat osatuz bien artean.

Palestinaren aldeko bandera lau haitzara zabalduz, beste behin milioika lagunek karrikak hartzen zituztela, Parisen Israelen (eta Frantziaren) banderak ziren nagusi. Irudi hori utzi zion beraz Frantziak nazioarteari –eta Israeli-. Zeinek eta Palestinaren aldeko manifestazioak debekatzen dituen horrek berak. Baina kontuz: gobernuko ordezkariak argi utzi zuten Israel-Palestina ez zela manifestazioaren gaia. Bai, aitortu beharra dago ariketa zaila dela martxari begiratzerakoan munduko geopolitika kontuan ez hartzea, eta jakin nahiko nuke martxarena nola irakurria izan den nazioartean.

Israelek eskertu zuen. Frantziako LCI telebista *mainstream*-eko gomita ere zen egun horretan Isaac Herzog Israelgo presidentea. Antisemitismoaren aurkako martxaz zer zioen galdetu eta ondokoa erantzun zion: “Bataclan-eko gertakari-tik [2015eko azaroaren 13ko Daeshen atentatua Pariseko Bataclan kontzertu gelan] zazpi urte pasa dira. Gaitzaren zikloak ez dauka bukaerarik. Urriaren 7ko gertakari izugarria Bataclaneko sarraskiaren agerpen berri bat dugu, gaitzaren indarrak bideraturikoa. Daesh, Hamas eta Al-Qaeda dira gaitzaren indarrak. Afera ez da Israel-Hamas. Bi kulturen talka dago, herraren kulturaren eta nazioen zi-

bilizazioen alde doan kulturaren artekoa. [Mahaipetik liburu bat atera eta] Liburu hau, Hitlerren *Mein Kampf*, Gaza iparraldean, Hamasen gune bihurturiko ume baten logelan atzeman dugu. Azken egunetan hildako Hamaseko terrorista baten poltsikoan zegoen. Horretan gaude. Borrokatu behar gara, pentsatu gabe, ezin onartua dugulako”. Erantzuna onargarria irudituko zitzaion, inolako oharrik edo ñabardurarik gabe ondoko galderara salto egin zuen kazetariari. Horretan gara, eta egun batez aztertu beharko dugu Gazako sarraskiari buruz komunikabideek egindako hitz, tonu, irudi, galdera eta gadekatuen hautaketa –hots, propaganda–.

## ISRAELI BABESA, BAINA HERRI ARABIARRAK GAITZITU GABE

Urriaren 7az geroztik Frantziako Estatuaren postura argia da: Israelek “zilegizko defenditzeko eskubidea” du eta “terroristen kontrako borrokan” erabat babesten du. Emmanuel Macron Tel-Aviven egon zen urriaren 24an. Orduan bota zuen ordura arte inork aipatu ez zuen proposamena: Daeshen aurkako nazioarteko koalizioa Hamasen aurka ere aritzea. Hortik Zisjordaniara joan eta Mahmud Abbas Palestinako presidentearekin elkartu zen –urriaren 7az geroztik Abbaskin elkaturiko bigarren estatuburuia izan zen, Herbehereetakoaren ondotik-. Gazako zibilen sufrikarioa “justifika ezina” zela ohartarazirik, Frantziaren postura





### NETANYAHU FRANTZIAN, BEHIN BAINO GEHIAGOTAN

Kasik erran dezakegu ohikoak direla Benjamin Netanyahuk Frantziari egindako bisitak. Lehena 1997an izan zen eta ondotik etorriko ziren beste batzuk: 2012, 2015, 2017, 2018 eta azkenik, aurtengo otsailean.

politikoa berretsi zion, hots, bi estatuko soluzioarena. Baina Israelgo lehen ministroarekin izandako hitzordua izan zen egun horretatik nagusitu zena. Azkenean, hori da Macronen gobernuaren postura: Israelen –hots, AEBren– gibelean itsuki lerrotatu, baina azken hamarkadetan Frantziari lotu ohi zitzaion kokapen politikoari bizkarra erabat erakutsi gabe.

Pentsa, azaroaren 10ean BBC telebistari egindako elkarrizketaren ondotik Israelgo presidenteari deitu zion, sostengua berresteko. “Su-etena” eta “pauza humanitarioa” eskatzeaz gain, Israelek zibilak “arrazoirik eta zilegitasunik gabe” hiltzea kritikaturik, Herzog eta bere lagunak gogorki kezarazi zituen. “Israelek defenditzeko duen eskubidea” berresteko deitu behar izan zion eta horrela laburbildu zuen Herzogek solasaldia: “Erran dit ez diola Israeli leporatzen zibilei nahitara min egitea”. Hortik bost egunetara, berriz kritikatu ditu zibilen aurkako erasoak. Horrela dabil Macron, erdipurdi, baina fermuki Israelen gibeletik.

Israelekiko lerrotatze hori Nicolas Sarkozyren presidentetzatik du Frantziak hain argia eta asumitua. Palestinarren eta Israelen arteko gatazka ere “[palestinaren] terrorismoaren aurkako borroka” izatera pasa da denborarekin. Macron urrunago joan zen 2019an, antisionismoa antisemitismoaren barnean jartzen zuen ebazpena bozkatzuz. Judu batzuen desadostasuna eragin zuen urratsak: mundu mailako 127 judu inte-

## 2019an urrunago joan zen Emmanuel Macron, antisionismoa antisemitismoaren barnean jartzen duen ebazpena bozkatzuz

lektual ezagunek eskatu zieten parlamentariei antisionismoa antisemitismoari asimilatzeko urratsa ez onartzea. Orain, antisionismoa zigortzeko lege proposamena aurkeztu berri dute hamasei senatari eskuindarrek.

Urratsez urrats, Frantziak erabat galdu du aitzineko hamarkadetan berreskuratzeko lortu zuen herri arabiarren sinpatia. Charles De Gaulle izan zen hartu-emanak lasaitzea lortu zuen Frantziako presidentea. Nagusiki, independentzia onartu ziolako Aljeriari, 1954tik 1962ra arte iraun zuen gerra odoltsuari bukaera emanez. Horrez gain, 1967an Sei Eguneko Gerra abiarazi zuen Israelen eraso gogorki kritikatu zuelako ere –“Orain, Israel dabil harturiko lurraldeak okupatzen, eta hori ez doa zapalkuntzarik, errepresiorik eta kanporaketarik gabe. Terrorisмотzat daukan erresis-

tentzia dauka parean” esaldia ezaguna da, 1967ko azaroaren 27ko prentsaurrekoan errandakoa—. Orduz geroztik, mantendu zen Israelekiko “lerrotatzearen printzipioa”. Sarkozy arte.

### SUEZKO KRISIALDIA: ESKUZ ESKU LUBAKIAN

1948-1967 urteak, haatik, Israel eta Frantziaren arteko harremanen “urrezko urteak” izan ziren. Bigarren Mundu Gerrako Holokaustoa gogoan, Israelen izaera aitortu eta babes osoa bideratu zion Frantziak. Hori nahikoa ez eta 1956an Sinaiko Gerran elkarren ondoan aritu ziren Israel, Frantzia eta Erresuma Batuak, Egipto bonbardatzen, Gamal Abdel Nasser egiptoar anti-inperialista sozialistaren Suezko kanalaren nazionalizazioa ez zutelako onartzen. Urte horretako uztailearen 22an Paris ondoko Sevres hirian elkartu ziren –gordezka– eraso adosteko. Frantzia eta Erresuma Batuentzat porrota izan bazen ere, Israel burua zut atera zen, munduari bere indar militarra argiki erakutsirik. Funtsean, Frantziako Ministroen Kontseiluko presidente Guy Molletek errana da: “Puntu positibo bakarra da Israel salbatu dugula”. Azkenik, ez dezagun ahantzi oinarria, Frantziak eta Erresuma Batuak 1916ko maiatzaren 16an sekretupean izenpetu Sykes-Picot hitzarmena: Ekialde Hurbilaren banaketa koloniala adostu zuten, herri arabiarrei egindako independentzia promesaren gainetik pasaz. ●

# Genozidioa zurrizko hedabideen hamar artefaktu

Gazako inbasioak aurrera darrai, Israelgo Gobernuaren aliatu estrategikoak direlako Mendebaldeko gobernuak, eta beraz, herrialde horietako hedabide nagusiak. Israel biktima bezala aurkezteko asmoa ondorioztatzen da diskurtso nagusien azterketa semantikoa eginez gero. Eta hala ere, mundu osoan –baita Israelen aliatu diren estatuetan ere–, milioika eta milioika lagun ari dira kalera ateratzen sarraskia geratzeko eskatuz. Horrek erakusten du, hedabide horien boterea izugarria izan arren, zailtasunak dituztela marko ideologikoa iritzi publikoan eztabaidarik gabe txertatzeko. Azken batean, hitzek axola dute. Erabiltzen ditugun hitzak gara. Hala idatzi zuen Saramagok.

 LANDEK ARBELAITZ MITXELENA

## 1- “ISRAEL-HAMAS” GUDA?

Urriaren 7an eguerdian, Hamasen talde armatuak eta beste lau taldek Israelgo militar eta zibilen aurka egindako erasoaren ostean, Israelgo Gobernuak guda deklaratu zuenean, nazioarteko milaka hedabidek Netanyahu ongi aukeraturako ideia errepikatu zuten: *Israel-Hamas guda hasi da*. Hori izan da mundua astinduko zuten izugarrikeriei buruzko informazioen inguruan –egunkarietan izenburuaren gainean, telebistan erroltuetan, irratan albisteen aurkezpenean...– beren kokapena. *New York Times*-etik *El Diario Vasco*-ra, *EiTBtik Le Monde*-ra.

Gaia horrela planteatzea, eta ez adibidez *Israel-Palestina guda* edo *Israel-Gaza guda*, erabaki editorial garrantzitsua da. Hamas Gazan agintean dagoen mugimendu politikoa da. Israelen agintean Likud alderdia dago, eskuin muturrarekin batera. Etiketa horren antitesia *Likud-Gaza guda* edo *Likud-Palestina gerra* lirarteke, pentsaezina aztertzen ari garen hedabideetan. Marko ideologikoa Israelen eraso Israel-Hamas guda testuinguruan kokatzeak, batetik, Palestina ezabatzen du ekuaziotik, eta beraz, testuinguru historikoa eta bertako gatazka politikoa desagertzen dira kokapenetik bertatik; bestetik, dena urriaren 7an hasi

izan balitz bezala planteatzen da, Israelgo Gobernuaren diskurtsoa bete-betean; eta azkenik, darabilten formula horrekin, Likud eta Israelgo gobernu ultra eskuindarra Israelgo herri osoarekin identifikatzen da implizituki, Hamas Gazako herritarrengandik aldentzen den bitartean. Hala, esan beharrik ez dago, Israelen bonbardaketak legitimatzen dira.

Ikusita Israel Hamaseko ekintzaileak baino askoz zibil gehiago ari dela hiltzen, 4.000 haurretik gora barne; ikusita Israelek ospitaleei, eskolei eta errefuxiatuen kanpamenduei eraso egiten jarraitzen duela, egiari fidelagoa da, adibide bat jartzearen, *Berrria* egunkariko “Gazako egunerokoa”-n Atef Abu Saif-ek darabilen formula: *Gazaren aurkako guda. Gazaren aurkako Israelen guda.*

## 2- NORK BONBARDATU DITU?

Sarean bilaketa bat eginda, esan daiteke munduko hedabideak bi multzo handitan bereiz daitezkeela: bonbardaketei buruzko titularretan Israelen egiletza aipatzen dutenak eta, xehetasun hori ezkutatu, informazio garrantzitsu bat lehen planora ez eramatea erabakitzen dutenak. Bigarren multzo horretan sartzen dira nazioartean prestigiotsu gisa aurkeztzen diren hedabideetako asko.

“Nork baina?”, galdetzen diote do-

zenaka aldiz –ingelesez “*By whom?*”– sare sozialetan BBCri. Hemen adibide bat –artikulu honen sareko bertsioan lotura guztiak aurkituko dituzte, eta bertan kontsultatu ahal izango dira izenburu originalak, hemen izenburuak euskaratuta aurkeztuko ditugu irakurketa errazte aldera–: *Dozenaka hildako Gaza iparraldeko errefuxiatu gune bateko leherketan*. Titularra aztertuta, kazetariak hartu dituen bi erabaki nabarmentzen dira: batetik, “leherketa” dio, ez “bonbardaketa”; eta bestetik, ez du zehazten nork bota duen lehergailua eta jendea hil. Adibide gehiago. Europa Press: *Gutxienez 29 kazetari hilak izan dira Israel eta Hamas arteko gerran*. Edo *Le Monde*: *Ikusi Jabalia errefuxiatu guneko bonbardaketaren irudiak*. Edo *New York Times*: *Gutxienez 24 hildako NBEk kudeatutako eskola bati eginiko erasoan*.

“Hilketa misteriozua al da? Nork egin du?! Ezezaguna da?!” erantzun dio Ahmed Leithy erabiltzaileak CNNri, ondorengo izenburuak sututa: *Familia amerikar-palestinar bat dolua egiten ari da, egun bakarrean Gazan 42 kide hil dizkietelako*. Hedabide batzuei deseroso zaien egia –Israel milaka zibil hiltzen ari dela– ezkutatu edo leuntzeko estrategia da, eta dagoeneko arreta deitzen ari da jende askoren begietara.



AEBetan Palestinarekin elkartasunez, protesta ugari egiten ari da juduen komunitatea. *New York Times*-en egoitzan ere sartu ziren eta genozidioa zuritzen ari zirela salatu zuten.



### 3- GEZURRARI SINESGARRITASUNA EMAN

Oso errepikakorra da eta Euskal Herrian ere askotan ikusi izan dugu. Eskandalu posible baten aurrean, arduradun instituzionalek estrategia politiko gisa erabiltzen dute gezurra, helburua argia batekin: iritzi publikoan lehen kolpe mediatikoa leuntzea. Hala gertatu izan da Zubietako erraustegiak ondoko erreka kutsatu izan duen bakoitzean edo Donostiako metroko obrek kalean zulo bat edo etxe batean pitzadurak eragin dituztenean, bi kasu aipatzearen. Agintariak argi dute zer egin: dena ukatu. “Kutsadura hori ez dator erraustegitik, ikertu behar da” edo “Lurreko zulo horrek ez du zerikusirik metroaren obrekin, aztertu behar da”. Horrekin lortzen dute hedabideek bi bertsio baleude bezala jokatzea, titular nagusietan eskandalua hipotesi bezala edo zer gertatu den jakin ezin balitz bezala aurkeztea. Ondoren, beti gertatzen da gauza berdina: baietz, kutsadura erraustegitik filtratu zela edo zuloa obrek egin zutela jakiten dela. Begi bistakoa, baina bigarren boterako arreta mediatikoa beste gaietan kokatua izaten da eta hipotesi gisa planteatu zuten hedabideek gutxitan ematen diote lehen informazioari eman zioten adinako garrantzia, eta beraz, askoz ere jende gu-

txiagorengana heltzen da. Agintariaren gola. Halako estrategia manipulatuzaileek merezi dute gogoeta bat eta ausardia gehiago kazetaritzan, ez dezaten urratu egiazko informazioa jasotzeko herritarrek duten eskubidea.

Gezurra etengabe darabilte Israelgo agintariak ere, azken hamarkadetan askotan ikusi dugunez. Azaroaren 17an oso garbi ikusi zen, Gazako al-Ahli ospitalea bonbardatu eta ehunka zibil sarraskitu zituztenean. Gazako agintariak misil israeldar batek eragin zuela salatu zuten berehala. Nazioarteko iritzi publikoaren asalduraren aurrean, froga faltuak eta bideo manipuluak zabaldu zituen Israelgo armadak esateko ez zutela beraiek bota misil hori eta Palestinako erresistentziaren suziri desbideratu bat izan zela eragilea. Nahiz eta hipotesi horrek ez eduki ez hanka ez buru –hasteko, palestinarrek ez dutelako halako suntsidura eragiteko moduko armarik eta Israeliek egunak zeramatzalako eraikin osoak misilen bidez birrintzen–, hedabide nagusi gehienek galdera moduan edo egiletza aipatu gabe informatu zuten. “Israeliek Gazako Al Ali ospitalea bonbardatu du” argi esan beharrean, horrela titulatu zuten askok: *El Diario Vasco*: “Ehunka hildakorekin” odol bainua eragin du Gazako ospitale baten gaineko bon-

*bardaketak*, edo *New York Times*: *Gazako ospitalean izandako leherketaz dakiguna*. Handik egun gutxira, Al Jazeera-ren ikerketa batek frogatu zuen Israelen misil bat izan zela, noski, ospitalera bota zutena eta egun, ez dago zalantzarik, ospitale barrura frankotiratzaileekin pazienteei tiro egitera iritsi baitira, Mugarik Gabeko Medikuek salatu zutenez.

Beste adibide bat jartzearen, Israeliek zibilez beteriko anbulantziak bonbardatu eta 13 pertsona hil zituztenean azaroaren 3an, inolako frogarik erakutsi gabe esan zuten anbulantzietan Hamaseko kideak zeudela ezkutatuta. Ospitaleko medikuek berehala ukatu zuten arren, hedabide askok hipotesi hori zalantzan jarri gabe publikatu zuten guda krimenak zuritzeko Israeliek darabilen propaganda. Ondorengo argitaratu zuen adibidez *La Voz de Galicia*-k: *Hamas bere gerlari zaurituak zibilekin batera Rafahko pasabidetik pasatzen saiatu zen* edo Indiako irakurrienetako bat den *Hindustan Times*-ek: *Israeliek Gazako ospitale ondoan anbulantzia 'Hamaseko militantei' eraso egin die, eskola bat ere erasotua, 35 hildako*. Titular horietan bandotako baten bertsioa ontzat ematen da. Berdin gertatu da Al-Shifa ospitalearen azpian Hamasen egoitza nagusia zegoela zioten informazioekin. Inolako frogarik

aurkeztu gabe hipotesia ontzat eman dute –baita Israelgo armadaren bideo simulatzaile bat zabaldu ere– mundu osoan hedabide askok. Ospitalea indarrez hartu ostean, ordea, aldizkari hau inprentara bidali dugun uenean, Israelek oraindik ez du manipulaturako bideo batzuk besterik zabaldu, BBC eta CNNk publikoki salatu dituztenak. Israelen propagandan oinarritutako “dena da Hamas” informazioek bilatzen dutena da iritzi publikoari ongi iruditzea anbulantziak edo ospitaleak bonbardatzea, nahiz eta hori Genevako hitzarmenak debekatu.

AEBko akademiko judu Norman Finkelstein oso haserre mintzatu da *New York Times*-ek al-Shifa azpiko Hamasen ustezko egoitzari eman dion koberturagatik. Sare sozialetan gogorarazi die *Der Sturmer* egunkariaren zuzendari Julius Streicher Nurembergen urkatu zutela nazien krimenengatik, eta galdetu du al-Shifaren aurkako erasoak zuri duten kazetari eta hedabideak ez al diren bertako inkubagailuetan hildako haurren arduradun.

#### 4- DEFENTSARAKO ESKUBIDEA, NORENA?

Azken bi urteetan, herriek beren burua defendatzeko duten eskubideaz asko hitz egin dute agintari eta hedabideek. 2022an Ukrainak Errusiaren inbasiotik defendatzeko eskubideaz mintzo ziren. Oraingo honetan ere, hedabide hegemonikoak eta bateko eta besteko gobernuetan dauden agintariak –Iñigo Urkullu besteren artean– defentsa eskubideaz mintzatu dira. Ez baina Palestinaren eskubideaz Israelek duela 75 urtetik bertan estatu kolonizatzaile gisa eragiten duen apartheid egoerari erantzuteko. Autodefentsarako eskubidea, zeini eta Israeli egotzen dio AEB eta EB-k gidatutako blokeak. Hainbat astean luzatzen ari den eraso gupidagabearen lekuko izan arren, oraindik ere, Hamasek militar eta zibilaren aurka egin zuen sarraskiak den-dena justifikatuko balu bezala mintzo dira batak eta besteak, guda krimenak, genozidioa eta garbiketaren etnikoa barne.

Azaroaren 16an, azken eraso hasi eta sei astetara, Europar Batasuneko atzerri eta segurtasun ordezkari Josep Borrell honela esan du: “EB-k Hamasen ekintzak gogortasunik handienarekin gaitzesten ditu eta ez du zalantzarik Israelek bere burua defendatzeko duen eskubidean”. Ondoren, Israeli eskatu

dio, beste hitz batzuekin, ez ditzala guda krimenak hain agerian egin, geroz eta deserosoago baitaude bere aliatuak.

#### 5- HAMAS “ERAKUNDE TERRORISTA”

Hamas Gazan agintzen duen alderdi politikoa da eta hango hauteskundeak irabazi zituen 2006an. Beso armatua du –al-Qassam brigadak–, beste alderdi palestinar askok daukaten bezala, besteren artean, Fatahk. Gai hauek bikain aztertu ohi dituen Manu Levinek *La Base* podcastean azaldu bezala, Hamas ez dago mundu osoaren terroristen zerrendetan. Ondorengoek badaukate: Israel, AEB, EB, Japonia, Kanada, Paraguay, Australia, Egipto edo Paraguay. Ez dute terrorista gisa definitzen, ondorengoek: Suitza, Norvegia, Turkia, Brasil, Txina eta Errusia, batzuk aipatzearen.

Beraz, sistematikoki Hamas erakunde terrorista gisa definitzea, gutxiengutxienez, ez da mundu osoan datu objektibo gisa aurkezteko daitekeen zerbait, herrialde batzuekin lerratuta dagoen planteamendu ideologikoa baino. Hamas eta erresistentzia palestinarra beti terrorista gisa aurkeztuta, Israeli abantaila morala ematen diote sarraski honetan, eta beraz, Israelen erasoak terrorismoaren aurkako ekintza gisa aurkezten dira inplizituki. Ofizio honen lotsarako geratuko dira, Israelen bonbardaketek hildako palestinarren senideak, besteren artean, nola galdekatu dituzten Mendebaldeko zenbait hedabidetan. “Hamasen terrorismoa gaitzesten duzu?”. Beti botako diete galdera hori. Honela erantzun zion BBCko elkarrizketazailerari Britainia Handiko Palestinako enbaxadoreak urriaren 8an. “Zenbat aldiz egin ditu guda krimenak Israelek? Eta haiei egiten dizkiezun elkarrizketak hori gaitzesteko eskatuz hasten al dituzu? Nik erantzungo dizut: ez. Utzi palestinarroei etengabe geure burua gaitzesteko eskatzeari”.

Baina murgil gaitzezen konnotazio politikoa sakonak dituen “terrorismo” kontzeptu ilunean. Zibilak bahitu eta hiltzea “terrorismo” kontsidera daiteke? Hala erabiltzen da. Eta beraz, zergatik ez zibilak hiltzea ospitale bat bonbardatuta? Zergatik ez da terrorismoa bi milioi pertsona urik, elektrizitaterik eta osasun zerbitzurik gabe utzi eta egunero guda krimenak egitea? Israel, sorreratik, praktika terroristak darabiltzan estatu bat da.

Israelek darabilen lengoia erabiliz, baina, “Hamasen helburuak” bonbarda-

tzen dituztela nabarmentzen da askotan, bigarren mailan utziz eraso horiek egindako triskantzak. Euronews: *Israelek Hamasen ehunka helburu bonbardatu ditu bart*. Bonbardaketak zuritzen dituen adibide bat bakarrik da.

BBC da Mendebaldean politika horri uko egiten dion hedabide nagusia –inpartzialtasun etiketa bilatzen du, nahiz eta, objektibotasuna bezala, hori ezinezkoa den, galdetu bestela Eskoziako independentistek– eta orain egun gutxi polemika iturri izan da Israelgo Gobernuak zuzenean kritikatu duelako ez diela Hamaseko kideei “terrorista” deitzen. BBCk bere erabakia defendatu du eta nazioarteko kazetari beterano John Simpsonen hitzak lehen lerrora ekarri ditu: “Nor baiti terrorista deitzea bando bat aukeratzea da”.

#### 6- MARKO OROKORRA: TERRORISMOAREN AURKAKO GUDA

Hamas terrorista bada, sakoneko planteamendua Espainiako Estatuak Euskal Herrian eta George W. Bushen AEBek Iraken erabilitako bera da: terrorismoaren aurkako guda. Ongi dakigu zer dakarren horrek. Iraken ere bai: milioi bat pertsona baino gehiago hil zituzten han sekula agertu ez ziren suntsidura handiko armen aitzakian.

Hainbat tonatoko misilak eraikinen gainera bota, hauek birrindu eta barnean bizi ziren familia osoak hiltzea “Hamasen aurkako operazio kirurgikoak” direla irakurtzen da. Hori baina, biztanleria zibilaren aurkako erasoak zuritzeko lengoia da, guda krimenak ezkututzen eta Israelgo armadak darabilen propaganda zabaltzen duena, kazetaritza bailitzan: *El País*-en titularrak jarraian: *Israelgo armada Gazan zabaldu da Hamasen 450 posiziori eraso egin ostean*. Egun horretan ere, dozenaka lagun hil zituen Israelgo armadak, haurrak barne.

Markoa *Israel-Hamas guda* gisa ezartzeak palestinar herri osoa terrorismoarekin lotzea ahalbidetzen dio eskrupulogutxiko jendeari. Muturreko adibide bat ekartzearren, Israelgo Canal 14 telebisitak, Gazako inbasioko datuak ematean –zaurituak eta hildakoak–, hildako palestinarren datuaren gainean “hil ditugun terroristak” errotulua erabili zuen. Londresen bizi den Ahmed Alnaouq kazetari palestinarra sare sozialetan erantzun zion: “Israelgo telebista honek dio 7.546 terrorista hil dituztela. Terrorista ho-





Malcolm X-en esaldi ezaguna protesta batean: "Ez bazabiltza kontuz, egunkariak zapaldua gorrotaraziko dizute eta zapaltzailea maitaraziko".

rietako hamalau ezagutzen ditut, nire ilobak ziren, eta 1 eta 13 urte artean zituzten".

## 7- PERTSONAK ALA ZENBAKIAK?

Milaka biktima palestinarrei buruz ez dakigu ez izen-abizenik, ez zer egiten zuten, ezer ere ez. Biktima israeldarrei buruz, askoz ere gehiago iristen da. Adibidez, urriaren 7an eta hurrengo egunetan Hamasek bahitu eta hildako zibil ugariaren historiak jaso zituzten Mendebaldeko hedabideetan. Shani Louk alemaniarren kasua, adibide bat da. AEBetako *Time* aldizkariaren azken azala ere adibide bikaina da: Hamasek bahituta duen pertsona baten familia eta beren historia. Hor ez dago arazorik, biktima zibilak humanizatzea ariketa duina da. Besterik da, hedabide hauek normalean alde bateko biktimekin bakarrik jokatzeko dutela horrela. Enpatia sortzen saiatzeko estrategia da, bando bat "gure" bando gisa aurkezteko modu bat, eta bestea ez.

*El País*-en titularra hurrengoa: *Gaza-ko gudan haur bat hiltzen da 10 minutuero, Save The Childrenen kalkuluen arabera. 9.000 biktimetatik 4.000k ez dauka ez izenik ez historiarik*. Lehen zatian kazetariak zuzenean jar zezakeen Israelek hiltzen duela 10 minutuero haur bat Gazan, baina bigarren zatian oraindik eta arreta handiagoa deitzen du. Pertsona horiek bazituzten izen-abizenak eta

historiak. Beste gauza bat da Mendebaldeko kazetariok ohikoan ez ditugula ikertzen eta gure publikoei helarazten.

Al Jazeera *Remember their names* (Gogoratu beren izenak) atala sortu du palestinarrek ez direla zenbakiak erakusteko. Horrelako gauzengatik, eta zuzenean Israelgo propagandari aurre egiteagatik, mundu mailako erreferentzia informatibo nagusia bilakatu da Qatarreko hedabidea. Kontuak zer diren, Israelek lege berri bat onartu du Al Jazeera ixten saiatzeko, enegarren aldiz.

## 8- HILDAKOAK VS. ERAILDAKOAK

Euskarazko hedabideek ohikoan beti "hildako" erabiltzen dugu eta beraz, ez da halako mailaketarik sortzen. Gaztelan, baina, *morir* vs. *asesinar*, frantsesez *mourir* vs. *meurtre*, ingelesez *to die* eta *to kill* edo *to murder* kontzeptuek esanahi, eta beraz, konnotazio ezberdinak dituzte.

*El Mundo* egunkariak atal hau ilustratzeko adibide mordoan ematen ditu bere hemerrotekan. Adibide bat hartzearen, urriaren 8an, sarreran hau zekarren: *700 israeldar baino gehiago erail ditu Hamasek (asesinados)*, eta artikuluan beherago, *413 palestinar hilak izan dira (muertos)*.

BBCren beste adibide bat, Israelek Jabaliako errefuxiatuen eremua bonbardatuta ehunka biktima eragin zituenean: *Gaza iparraldeko errefuxiatu gune*

*batean hamarnaka hildako*. Ez ziren dozenaka, ehunka baizik egun hartan hildakoak; zibilak ziren hildakoak, Israelek bonbardatu zituen errefuxiatuak; eta ez zen leherketa bat izan, bonbardaketa baizik.

## 9- EGOERA AZAL DAITEKE OKUPAZIOA ETA APARTEID-A AIPATU GABE?

Urteak dira nazioarteko eragile ugariak Apartheid gisa definitzen duela Israel Palestinan egiten ari dena. Izan Amnesty International, Oxfam edo Nazio Batuen Erakundea. 2022ko martxoan horrela esan zuen azken horrek: "Palestinako lurraldearen okupazio israelarra apartheid egoera bat da" eta definizioa bere egingo zuela jakinarazi zuen.

Apartheidia Hegoafrikan ezarri zuten sistema politikoa izan zen, zeinaren bidez estatu berean bizi ziren bi giza taldeetako bati pribilegioak aitortzen zitzaizkien eta bestea diskriminatzen zen. Palestinako egoeraz zertxobait informatua dagoenak badaki definizio hau bete-betean aplikatzen dela Israel egiten ari denarekin. Hala ere, apenas ikusiko ditugun hedabide nagusietan definizio hori bere egiten duten artikulak. Beti kakotx artean aurkituko dugu hitz hori, norbaiten ahotan jarria. Antzeko gertatzen da okupazioarekin. Gazako azken erasoaldiaz informatzen da, aipatu gabe, Palestinan bizi duten okupazio egoera, eta hori egunerokoan nolakoa den.

## 10- PALESTINAREN ALDEKOAK, ANTISEMITAK?

Nahaste interesatua eragin dute Israelen aldeko indarrek antisemitismoa eta anti-sionismoa nahasita.

Antisemitismoa juduen aurkako aurreiritzi, etsaitasun edo diskriminazioa da, juduak erlijio-, etnia-, nahiz arraza-talde gisa ulerturik. Eta Palestinan egiten ari den genozidioa, ezin da inolaz ere ulertu juduen, juduak direlako, aurkako diskriminazio gisa. Hala erakusten dute Israeldik kanpo bizi diren eta Palestinaren alde mobilizatzen diren milaka juduek.

Gazako genozidioa salatzen duten herritarrei antisemitak izatea egozten die eskuinak –baita eskuin mediatikoak ere– munduko leku guztietan. Eta gaur egun Israelen babesleak nor izango eta Frantziako Le Pen, Espainiako Abascal, Italiako Meloni... betiko faxista eta antisemitak, alegia. Marka da gero. ●

# “Gazako metroa”, palestinar erresistentziaren tunel sistema

Israelgo Indar Armatuaren Estatu Nagusiak Gazako metroa izena jarri dio erabilera militarreko lurpeko galerien sare palestinarri. Gazako Zerrendaren inbasioaren aurrean erresistentzia palestinarrek erabiliko duen arma misterioitsu hau isilpean zabaldu da Israelek okupaturiko lurren eta Egiptoren mugetaraino, bereziki 2006ko gerraren ondoren. Baina nola lortu dute hain azpiegitura konplexua erabateko isilpean eraikitzea? Zergatik da horren eraginkorra borrokarako? Zer estrategia ari da prestatzen Israelgo Estatu lurpeko mehatxu horri aurre egiteko?

 MIKEL EIZAGIRRE

**G**azako metroak berebiziko garrantzia du arabiarren erresistentziaren borroka-dinamikan, eta funtsezko faktorea da Israelgo Estatu eta Ekialde Hurbila kolokan mantentzen dituen azken gatazka beliko honetan. Izan ere, ez dira soilik ezkutuko pasabide batzuk, baizik eta lurpeko hiri oso bat, erresistentziaren operazio militarretarako eta bere antolaketa-egituren biziraupenerako funtsezkoa dena. Horrela, sare hori deszifratzea eta desegitea erabateko lehentasuna bihurtu da sionistentzat; are gehiago, 250 bahitu israeldar eta atzerritar haien sakonean atxikita egon daitezkeela uste dutelako.

Palestinako lurpeko gerra modernoaren oinarriak XX. mendeko 1980ko hamarkadaren amaieran ezarri ziren. Tunelok, hasiera batean, palestinarrek bizirauteko behar zituzten askotariko materialen kontrabandorako erabiltzen ziren, israeldar blokeoa saihestuz.

Arriskutsuak bezain oinarrizkoak ziren azpiegiturak lehen, baina izugarri garatu dira azken hiru hamarkadetan. Palestinar erresistentziak diru, lan-indar eta eraikuntza-tekniken ikerketa asko inbertitu du bertan. Esfortzu hori oso eraginkorra izaten ari da, eta ez edozergatik. Borrokarako tunelak erabiltzea oso ohikoa da Palestinakoa bezalako gerra asimetrikoetan, non lehiakide batek besteak baino askoz botere eta teknologia militar gehiago duen. Viet Kongek antzeko *satortzu-loak* erabili zituen Vietnamgo Gerran, baita talibanek Afganistanen ere. *Financial Times* egunkariak gogorarazi duenez, gerrilla-gerraren logika orokorraren ildotik, lurpeko sareek indarren korrelazioa parekatzea lortzen dute, eremu irekiko zuzeneko borroka saihestu eta erresistentziari mesedegarriago zaion beste borroka mota batekin. Gazako metroak Zerrendako lurralde osoan detektatua izan gabe mugitzeko aukera ematen dio erresis-

tentziari, baita sionisten kontrolpean dauden perimetroetan ere. Horrela, ustekabeko erasoak, segadak eta misilen jaurtiketak askoz eraginkorragoak dira.

Lurpeko sistemak defentsa-lerro gisa ere jokatzeko du, askoz handiagoa eta aurreratuagoa den indar baten erasoaldiaren aurrean. Pasabideek sionistek lurrazalean dituzten abantaila taktiko eta teknologiko ugari neutralizatzen dituzte: erresistentzia palestinarren unitate militar bat Gazako Zerrendaren ia edozein puntutan azalera atera daiteke, eraso egin eta berehala desagertu. Taktika horren eragin psikologikoa bereziki handia da lurrazaletik aurre egin nahi bazaio, azken finean, “etsai ikusezin” baten aurka borrokatzea esan nahi duelako. Hark erasoan ostean itzaletik behatzen jarrai dezake, gainera. *Otsoaren ahora* sartu eta erresistentziari bertatik bertara aurre egitea ez da askoz aukera hobe, aurrerago ikusiko dugunez.





Jihad Islamikoko kide bat, Gazako Zerrendako tunel batean, 2022an. MAHMUD HAMS / AFP

## TUNELN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIOAK

Israelgo Estatuak erresistentziari egotzi dio hormigoia eta helburu humanitario zein zibilak dituzten eraikuntzako bestelako material batzuk tunelen ekoizpena desbideratzea. Aitzakia horrekin, 2007tik aurrera debekatu zuen eraikuntzako materialak Gazako Zerrendan sartzeara. Dena den, bertako eraikinak berre-raikitzea ezinezkoa bihurtu zenez, arazo humanitario handia eragin zuen bonbardaketa etengabeen ondoren. 2010ean, sionistek soka pixka bat lasaitu zuten, eta Gobernu Kanpoko Erakundeak zein Nazio Batuak etxeak, ospitaleak, errepideak eta eskolak eraikitzeko materialen proportzio oso kontrolatuak Gazara sartzaren hasi ziren. Hala ere, gaur gaurkoz ia ziurra da material horren zati bat erresistentziaren lurpeko sistema militarra hedatzeko erabili zela.

2014ko gerrara arte, sionistek ez zuten sarearen edo haren zati handi baten benetako hedadura usaindu ere egin.

Aldi hartan, Gazako metroa desegiten saiatu ziren, eskala handiko lurpeko eraso batekin lehenbizi eta Zerrendako mugan zehar harresi bat eraikita gero, lur azpian hondoratzen zena. Ahalegin hutsean geratu zen ordea.

Indar okupatzaileak berak mapa bat zabaldu zuen 2021ean, aireko erasoekin suntsitu zituen tunelak erakusten zituenak. *BBCK* gogora ekarri duenez, Israelgo armadak esan zuen “100 kilometro tunel” suntsitu zituela orduan. Hamasek ordea, erantzun zuen “sarearen %5a” baino ez zutela jo. Horren harira sionistek argitara atera zutena orduko tunelen zati txiki bat baino ez zen arren, egitura orokorraren berri eman zuen. Hedabide britainiarrak erakutsi zuenez, sionistek identifikaturiko tunel gehienak Gazako Zerrendaren ipar eta hegoaldeko muturretan kontzentratzen dira, eta beste nodo bat, berriz, erdigunean. Ez dute eraso militarreko helburua bakarrik betetzen, hiru taldetan sailkatzen dira, funtzioaren arabera:

**Batetik, eraso-tunelak:** Gaza hiriko iparraldeko eta Beit Hanoun inguruko tunel gehienak mota horretakoak dira. Horiek dira Israelgo Estatuak okupaturiko lurraldetik gertuen daudenak eta muga arteko erasoak egiteko erabiltzen dituztenak. Ondorioz, Israelgo armadarentzat suntsitu beharreko premiazkoenak dira tunel hauek. Hori bai, nahiko estalita daude eta militarki babestuenak dira.

**Bestetik, erdialdeko defentsa-pasabideak:** Zerrendaren erdiguneko atal hori armategiz beteta egongo litzateke, besteak beste. Bertan gordetzen dituzte armak, misilak, munizioak eta erresistentziaren azpiegitura logistikoaren gehiengoa, orohar. Gainera, erresistentziaren buruzagi militarrentzako bunkeurrak eta 250 bahituen gordelekuak ere bertan egon daitezkeela uste du Mosadek. Erresistentziaren “atzeguardia” moduko bat izango litzateke, eskuragaitzena eta babestuen.

**Azkenik, Hegoaldeko tunelak:** kontrabandorako funtzionatzen dute Gaza

eta Egipto arteko Rafahko mugan, Khan Younisetik hegoaldera eta hego-mendebaldera. Palestinarrek askotariko hornidura zibil eta militarra bermatu dute bertatik; diru-iturri iraunkorra eta sostengu logistikoa Gazako Gobernuarentzat eta Palestinar erresistentziarentzat.

Labirinto honek Palestinako erresistentziarentzat duen garrantzia ikusita, logikoak dira sionistek hura suntsitzeko egin dituzten saiakera guztiak: bada-kite metroa jausten bada, erresistentzia osoa jausi daitekeela. Hala ere, eta estatubatuarrek Korean, Vietnamen eta Afganistanen ikasi duten moduan, lurpeko hiriok desegitea zaila bezain etsigarria da potentzia militar aurreratuentzat ere. Ez da eliteko unitate berezi batekin egun batetik bestera burutzen den zerbait; Benjamin Netanyahu berak ere duela gutxi onartu du: "Gazako lurreko inbasioa luzea izango da". Erresistentziak hornigai ugari sartu ditu bere gordelekuan, hilabete luzeetako setio israeldarrari aurre egiteko prest.

Lurpeko azpiegitura dirudiena baino sendoagoa eta sofistikatuagoa da: Israelgo armadak 2014an lurreko erasoak egin zuenean, dio Al Jazeera, "zur eta lur geratu ziren tunelen tamainarekin eta sofistikazioarekin. 10 eta 30 metro arteko sakoneran daude, 1,5 eta 2 metro arteko zabalera dute, eta altueran, berriz, beste metro eta erdi. Horri esker, borrokalariak aise mugitzen dira palestinar lurretan barrena, makurtuta eta ilaran. Tunel handiagoen kopuru zehaztugabe bat ere egongo litzatekeela diote israeldarrek. Galeria bakoitzaren luzera ehunka metrotatik hainbat kilometrorainokoa da, eta guztira, palestinarrek 2007tik 1.370 tunel baino gehiago eraiki dituztela ziurtatu du Israelgo Atzerri ministroak; tamaina, sakonera, garrantzi eta funtzio askotarikoak. Hamasek 2021ean jakitera eman zuenez, 500 kilometro inguruko luzera izango zukeen Gazako tunel-sare osoak; Londresko metro-sarea baino luzeagoa, New York hiriko metro-sare osoaren erdia eta Bilboko baina hamar bider luzeagoa izango litzateke hori, gutxi gorabehera. Alegia, munduko metro-sistema handi eta konplexuenetarikoa baten longitudoaren erdia izango luke, 41 bider 10 kilometroko azalera baino ez duen lurralde baten azpian.

Israelgo inteligentzia zerbitzuen arabera, erresistentziak milaka pertsona eta milioika dolar baliatu ditu hura erai-



REUTERS / IBRAHEEM ABU MUSTAFA

Palestinako bi langile kontrabandorako tunel batean, Gaza eta Egipto arteko mugan, 2013an.

kitzeko lanetan. Rafahko tuneleko operadore batek Reuters agenziari aitortu zion hiru eta sei hilabete artean ematen dituztela 8 kilometroko tunel bat eraikitzeko. Ia ziurra da hormigoiz eta zurez eraikitzen dituztela gehienbat, eta batzuetan altzairuarekin indartzen dituztela; Egiptoko pasabideetatik lortutako materialarekin. Tuneletan egon diren kazetariak eta armada sionistako soldaduek diotenez, palestinarrek elektrizitatea eta kable bidezko telefono-sarea ere jarri dituzte, argiztapena eta komunikazio-bide segurua bermatzeko; badira aireztapen-sistemak dituzten guneak, misilak eta bestelako material pisutsuak bizkor garraiatzeko balio duten errailak, eta, Hamasek zabalduetako irudietan ikus daitezkeen, baita autoentzako pasabideak ere. *The Washington Post*ek berriki jakinarazi duenez, tuneletako sarbideak urrutiko aginte bidez zabaldu, itxi edo lehertzeko sistemak garatu ere egin ditu erresistentziak. Horrek esan nahi du armada sionistaren batailoi osoak tranpetan erori edota lurpean harrapatuta gera daitezkeela, inkomunikatuta, katuaren eta saguaren jolasean. Kasu horretan, soldadu israeldarrak bihurtuko liriateke sagu, eta palestinarrek, berriz, katu.

## SIONISTEN ERRONKA ESTRATEGIKOA

Israeliek bomba aurreratua eskuratu ditu Gazako metroa desegiteko asmoz. *Bunker Buster* izeneko lehergailuok gai dira hormigoia zulatu eta lurpean 20 metrora dauden pasabideak eta bunkerrak suntsitzeko. Hala ere, Kobi Michael Israelgo Segurtasuneko Ikerketa Institutuko iker-tzaile nagusiak *The Washington Post*en gogoratu zuen bezala, palestinarrek "30 edota 40 metrotara" ere eraiki dituzte pasabideak. Sott Savitz ingeniariak, ildo beretik, zera ondorioztatu zuen AEBetako hedabide horren bideo-erreportaje batean: "Tunelak nahiko seguruak dira kasu askotan aire-erasoetatik babesteko". Are gehiago, bonbardaketen ondorioz tunelaren sarrera edota galeria jakin batzuk kaltetzea lortuko balute ere, erresistentziak barrutik zulatzen jarrai dezake. Sarrerak, irteerak eta pasadizoak beste nonbait ireki eta sarearen adar osoak operatibo mantenduko litzuzke.

Gainera, kilometro karratuko 5.000 biztanle inguruko dentsitatea duten eremu populatuaren azpian dago Gazako metroa, hau da, Talibanen tunelak ez bezala, Palestinako erresistentziarenak 2,2 milioi lagun inguru bizi diren 360 kilometro karratuko lurrazal baten azpian daude,



eta bertarako sarrerak etxebizitza pribatuetan, eraikin publikoetan edo zelaietan ezkutatuta egon daitezke. "Horiek aurkitzeko modu bakarra soldaduak bidaltzea da, eremuak oinez zeharkatzera", ziurtatu dute *The Washington Post*en. Bitartean, ez dirudi helburu zehaztugabeen aurka bonba aurreratuekin milioika dolar xahutzea ideia ona denik, ezta general sionista odoltsuenen ikuspuntutik ere.

Gauzak horrela, Israeliek lurpeko gerrarako metodo aurreratuagoa garatu du: satelite, drone, hegazkin eta georradar bidezko informazio-bilketarako sare aurreratua. Horrekin, aukera gehiago dute tunelen kokaleku zehatzak, haien sakontasuna eta konplexutasuna alde aurretik jakiteko. Inteligentzia militarreko sistema horrekin ez dute urriaren 7koa bezalako erasoak eragozterik lortu, baina baliteke Gazako tunel sistemaren puzzle osatu xamarra izatea. Hala ere, gauza bat da mapa eskuan izatea eta beste oinak lurrean jartzea. Baliteke sionistek tunelen barruan infanteriarekin borrokatu behar izatea, hau da, euren soldaduak tranpaz beteriko tunel ilun eta estuetara bidaltzea, palestinar milizianoak edonondik agertzeko beldurrez. Israelgo Estatuak unitate bereziak prestatu ditu horretarako; entrenaturiko txakur, robot eta bestelako ekipamendu aurreratuen laguntzarekin. Baina unitate espezializatuak ez dira tunelak eta erresistentzia desegiteko nahikoa izango: Hamasen Al-Qassam brigadek bakarrik 40.000 kide inguru izan ditzaketela uste dute Israelgo Defentsa Indarrek, eta horri gehitu behar litzaizkioke erresistentzia osatzen duten gainontzeko fakzio guztien milizianoak. Hau da, tunelak desegin nahi badituzte, sionistek soldadu arrunt ugari bidali beharko dituzte zulora.

Israelgo armada, oro har, agertoki ezezagun baterantz doa. Oso gutxi dira

Hamasek 2021ean jakitera eman zuenez, 500 kilometro inguruko luzera izango zukeen Gazako tunel-sare osoak; New York hiriko metro-sare osoaren erdia eta Bilbokoa baino hamar bider luzeagoa izango litzateke, gutxi gorabehera

lurpeko borrokaren doktrina osatua duten herrialdeak eta inork ez daki zer den zehazki palestinar erresistentziak tuneletan prestatu duena. Gainera, israeldarrak prestakuntza urri xamarrarekin sartuko dira Gazako labirintoan: ez dute lurreko guda garrantzitsurik bizi izan 2014an Gazan sartu ziren azken aldiak geroztik, eta haien buruzagiak Iranekin buru-belarri egon dira, edo Zisjordania okupatzeko auziei begira akaso. Gazari behar zen arretarik ez jartzea garesti ordaintzen ari dira, eta are garestiago ordainduko dute. Lurreko inbasioa hasi eta handik gutxira, urriaren 31n, Israelgo Defentsa ministro Yoav Gallantek zera aitortu zuen: "Gazan galera handiak izan ditugu azken 24 orduetan". Besterik gabe, Israeliek bere gain hartu beharko du historikoki hainbesteko beldurra eragin dion bajen kopuru handia, eta oraindik ikusteko dago Hezbolak zenbaterainoko presioa egin dezakeen iparraldetik

## ONDORIOAK

Haizam Amirah-k, Elcano Errege Institutuko Mediterraneorako eta mundu arabiarerako ikertzaile nagusiak, 2009an esaten zuen "zigor masiboen, errepresalia masiboen eta operazio kirurgikoen" politika alferrikakoa izaten ari zela. Hausnarketa horrek, bada, erabateko gaurkotasuna du abian den sarraskian: Israelgo Estatuak ez da gai izan, ez orduan ez gaur egun, bere herritarrek eskatzen dioten "segurtasuna" bermatzeko, ezta bere inguru geostrategikoko herrialde gisa harremanak normalizatzeko ere. Horren erakusle da Gazan ia hamarkadaro egiten dituzten inbasio militarrik, eta ondorioz, eskualde osoan eragiten dituzten tentsioak.

Ez da ahaztu behar sionistek talde palestinarrei kalte izugarriak eragiten badizkiete ere, palestinar erresistentziak etengabe berregiteko gaitasuna duela. Bitartean, sionistek zilegitasun morala galtzen dute eraso indiskriminatu bakoitzean, haien nazioarteko irudia kaskartzeko da eta inguruko herrialdeekin tentsioa areagotzen dute. Ami Ayalon militar israeldar beteranoak ildo beretik zioen, Carl von Clausewitz teorialari militar klasikoa aipatuz, "garaipena errealitate politiko mesedegarriagoa sortzea dela, ez besterik". Israelen garaipena, Ayalonen ustez, ez da "Gaza, Ramallah, Nablus edo Hebron konkistatzea", palestinarren aurkako batailak militarri irabaztea; esku-hartze guztiok ez dutelako sionistentzat "errealitate politiko hobea" sortzen. Israelgo Estatuak gaur arte "bataila guztiak irabazten, baina gerra galtzen" ibili dela ondorioztatzen zuen Ayalonek. Baina oraingoan badirudi gauzak aldatzen hasi direla, eta palestinarrik, eusteko ez ezik, batailak irabazteko posizioan daudela behingoz. ●



# Goizper Group

Elkarlanean garatzen



Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofian parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrial

hinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com

# BAI, EGIN DEZAKEZU ZERBAIT: BOIKOTA ISRAELI

Palestinar herriak duela ia hogeitun urte esan zigun zer egin dezakegun Israelgo Estatuak ezartzen dion genozidioa eta apartheidia geldiarazteko: propagandaren eta diruaren iturria moztea, azken hori baita euren benetako jainko bakarra.

IRANTZU VARELA / **Pikara**  
MAGAZINE

Artikulu hau *Pikara Magazine*nek argitaratu du eta CC BY-NC-ND lizentziari esker euskaratuta ekarri dugu.

Israelgo Estatuaren herri palestinarren aurka egiten ari den basakeriak *streaming* bidez ikusten ditugun bitartean, ezintasunak geldiarazita gauzka. 75 urtez jasan ostean lurra eta etxeak okupatzea eta bertatik kanporatzea, antolatuta dagoen gizarte zibil palestinarren 2005eko uztailaren 9an eskatu zigun posible dugun zerbaiteko: Israeli boikota egitea, giza eskubideak errespetatu arte edo, gutxienez, Nazio Batuen Erakundeak ezarri dizkion aginduak bete arte.

Palestinako herriak Boikota, Desinbertsioa eta Zigorak (BDZ) kanpaina proposatzen digu, nazioarteko politikan esku-hartzerik ez dugun pertsona, erakunde eta mugimenduen duintasunari deituta, zeintzuei motz geratzen baitzaigu kaleak garrasiz eta mobilizazioz bete-

tzea, Israelen ankerkeriaren eta nazioarteko komunitatearen konplizitatearen aurrean –batez ere Mendebaldearena–.

## ZER DA BDZ?

Borrokarako tresna da, antolatuta egotea eta kontsumitzea beste boteririk ez dutenentzat (ez hasi botoari buruz hitzetan, tira). Presio ekonomiko eta politikorako neurria da, hainbesteko boterea duten eta nazioarteko gobernu eta erakundearen konplizitatea duten horien aurka borrokatzeko historikoki erabili izan dena. Israelen boterea duen bezalakoan 1994ra arte, harik eta, Apartheidaren Aurkako Mugimenduak (AMM) sustatuta, erregimen supremazistari egindako boikot eta isolamendu kanpainak lortu zuten arte, 35 urteren ondoren, giza es-

kubideak gainjartzea kolonialismoari eta nagusitasun etnikoaren burugabekeriari.

## ZERTAN DATZA?

Boikota, Desinbertsioa eta Zigorak (BDZ) kanpainaren bidez, boikota egin nahi zaie Israeletik datozen produktu guztiei, apartheidaren erregimenarekin eta Palestinako herriaren genozidioarekin elkarlanean diharduten nazioarteko konpainia guztiei, eta nazioarteko zigorak eskatzen dira giza eskubideak etengabe urratzeagatik eta gizateriaren aurkako krimenak egiteagatik.


Alegia, kontua da ez elikatzea Israelgo Estatuaren makina genozida, ez kultura israeldar ofiziala den propaganda makina, ez Israelgo kontuekin beste alde batera begiratzeko nazioarteko komunitatea den makina.



# BOIKOTA

## HEGOAFRIKAKO APARTHEIDAREN AURKAKO NAZIOARTEKO MUGIMENDUA

Hegoafrikako apartheidaren aurkako barne-erresistentziarekiko elkartasunez, nazioarteko komunitateek boikot taktikak erabili zituzten maila akademiko, kultural eta ekonomikoan. Gobernuai, enpresei eta erakundeei presioa egin zieten Hegoafrika zigortu edo herrialdean desinbertitu zezaten. 30 urte baino gehiago iraun zuen mugimenduaren lorpen esanguratsuenetakoak hautatu ditugu.



## NOLA HASI ZEN ETA NORI BURURATU ZITZAION?

2004an, nazioarteko legedia desobeditzen duen Zisjordaniako harresia eraikitzen ari ziren bitartean, unibertsitateko irakasle eta akademiko talde batek mundu osoko lankideei dei egin zien Israelgo unibertsitateekin harremanak eta lankidetzak eten zitzaizkien, unibertsitate horiek okupazioaren eta apartheidaren konplize izateari utzi arte. Urtebete geroago, Palestinako gizarte zibileko 172 erakundek argitaratu zuten "Palestinako gizarte zibilaren deia Israelen aurkako Boikot, Desinbertsio eta Zigorrek egitera, nazioarteko legea eta giza eskubideen printzipio unibertsalak bete arte".

Nazioarteko gizarte antolatuen ulertu zuen proposamen horrek zekarren aukera, jada ikusi baitzuen Israelek ez zuela inolako asmorik Nazio Batuen ebazpenak betetzeko, ez Nazioarteko Zigor Auzitegiaren aginduak betetzeko, ezta "aukeratutako herri" gisa seinalatu zituen pertsonaia mitologikoarena ez zen beste autoritaterik onartzeko ere. Gainera, proposamenak betetzen du kolonialismoan erori gabe (Mendebaldean onak gara erortzen) herri bati lagundu nahi dion edozein ekintzaren funtsezko baldintza: herri zapalduaren eskaera esplizitua dela.

## BENETAN BALIO DU ZERBAITETARAKO?

Ba, begira, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu loa kentzen dio –eta ez dio kentzen, aldiz, nahita bombardatzeak Gazan zutik jarraitzen zuen haur onkologiako planta bakarra–, beraz, noski balio duela.

Boikota masiboa eta luzea bada, Israelgo ekonomian eragina izango du, eta baliteke pixkanaka axola gutxiago ematea jainkoaren promesak, eta gehiago arduratzea nazioarteko merkatuko "bezeroekin" ondo geratzeko.

Gainera, boikot kanpainak lortu dute enpresa transnazionalak Israeldik alde egitea, esaterako, Orange, Veolia edo Airbnb. Azken horrek konpromisoa hartu du palestinarrei usurpatutako etxeak ez alokatzeko (bai, kolono israeldarrek palestinarren beren etxeetatik botatzen dituzte, okupatu egiten dituzte eta gero nahi dutena egiten dute haiekin, Airbnb-n jarri eta beste).

BDZ kanpainak proposatzen du "made in Israel" produktu guztiei (baita kulturaleri ere) boikota egitea. Kontua da ez elikatzea Israelgo Estatua den makina genozida

Proposamenak betetzen du kolonialismoan erori gabe (Mendebaldean onak gara erortzen) herri bati lagundu nahi dion edozein ekintzaren funtsezko baldintza: herri zapalduaren eskaera esplizitua dela

## ETA NORI EGIN BEHAR ZAIO BOIKOTA?

BDZ kanpainak proposatzen du "made in Israel" produktu guztiei (baita kulturaleri ere) boikota egitea. Zuzeneko kontsumoan boikotatu daitezkeen produktuak identifikatzeko, onena da produktuen etiketei erreparatzea; "Israelen fabrikatuta" jartzen badu, boikota. Israelen erregistratutako enpresek 729 barra kodea dute, hortaz, erreferentzia ere bada. Arreta berezia jarri beharko litzaieke fruta, barazki eta pipei, Israel ekoizle eta esportatzaile handia baita. Datilei erreparatu behar zaie bereziki, medjoul bariatateko ia guztiak israeldarrrak baitira.

BDZko webgune eta sareetan zerrenda zehatzak aurki daitezke, baina enpresa batzuk nabarmentzen dira apartheid eta kolonizazio politiketan duten erantzukizunagatik, hala nola: Eden Springs, Golango biztanleei lapurtutako ura sal-

tzen duena; Teva Botika Orokorrak, Gazako herritarrei saltzen dizkiena bere gobernuaren bonbardaketetatik sendatzeko botikak; Premier Kosmetikoak, okupatutako Zisjordanian lehengaiak lapurtzen dituena; edo Epilady, Israelgo Armadarentzako sistema optikoak egiten dituena –ileak kentzeko makina txoez gain–.

Industria ekoizpena izateaz gain, Israel propaganda fabrika bat da, pop kultura eta "intelektualtasuna" erabiltzen dituena munduari bere ipuin sinetsagaitza kontatzen saiatzeko. Horregatik eskatzen da "made in Israel" ekoizpen intelektual eta kulturalari boikota egitea. Israelgo unibertsitateak Israelgo erregimenaren ezinbesteko konplize dira, nahita, genozidioa gauzatzeko teknologia sortuz, baina baita plan genozida intelektuali legitimatuko duen kontakizuna eraikiz ere. Kultur ekoizpenak eraiki du biktimismo, supremazismo eta islamofobia marko bat, arrosaz eta ostadarrez margotua, non sinetsarazten baitzute Israel zoriontsu den maleziagabeko jendez betetako herrialdea dela: ez dagoela *bullying*-ik, ez LGTBQfobiarik, ez matxismorik; baina bai 14 urteko beharrezko kartzelak, betiere palestinarren badira. Kultura sortzen badu eta apartheid eta genozidioa argi eta garbi kritikatzeko ez baditu, boikota.

Boikota eskatzen da, halaber, Israelgo Gobernuarekin negoziatioak eginez edo, are, herri palestinarren legez kanpo usurpatutako lurraldeetan jardunez, Israelen nazioarteko zuzenbidearen urraketak babesten, finantzatzen edo estaltzen dituzten enpresa transnazionalentzat.

## BA AL DAGO URRIAREN 7AREN OSTEAN EGINDAKO PROPOSAMEN ZEHATZIK?

Emaitzak izateko, nazioarteko elkartasun kanpainak denboran zehar mantendu behar dira edo masiboak izan behar dira; horregatik, BDZ mugimenduak proposatzen du Israelek urriaren 7tik aurrera egindako eraso genozidari erantzuteko boikota nazioarteko hiru markatan zentratzea: Puma, Hewlett Packard (HP) eta Carrefour.

Zergatik Puma? Israelgo Futbol Elkartearen (IFA) babesle nagusia delako –elkarte horrek barne hartzen ditu herri palestinarren legez kanpo okupatutako eremuetako taldeak– eta asentamenduetan sukurtsalak dituelako. Oraingoan, Liverpoolen uko egin dio





ECUADOR ETXEA

Elkarretaratzea Bilboko Carrefour baten aurrean, euskal sindikatuek deituta.

harekin akordio bat sinatzeari. Beraz, Puma, kanpora.

Zergatik Hewlett Packard (HP)? Apartheid-politikarako ezinbestekoa den material informatikoa saltzen duelako, eta bere teknologia kontrol-postuetan (*checkpoint*-ak) dagoelako, Palestinako biztanleek egunero igaro behar dituztenak, bertan umiliatu, zapaldu eta eraso egin diezaieten. HP, kanpora.

Zergatik Carrefour? Akordio bat sinatu duelako Israelgo bi frankiziarekin, herri palestinarri legez kanpo okupatutako eremuetan jarduten dutenak. Eta tropa israeldarrei janaria oparitzen ari zaizkielako, Bio produktuak jan ditzaten historiako kontzentrazio-esparru handiaren harrapatutako herritar zibil errugabeak hil ondoren. Carrefour, kanpora. (McDonald's-ek ere oparitzen die janaria, baina Israelgo frankiziak, ez enpresa globalak. Ez da ezer gertatzen haiei ere boikot pixka bat egiteagatik).

Eta etxean? Nazioarteko elkartasunak, borroka duin guztiek bezala, marko globala izan behar du, baina baita tokian tokiko ikuspuntua ere; hortaz, gertueagoko daukaguna, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF), egoitza Beasainen (Gipuzkoa) duena. CAFek esleitura dauka tren proiektu bat, Jerusalemgo mendebaldea lotzen duena lurralde palestinarreko legez kanpoko kokaguneekin, eta horrela, apartheidari etekina ateratzen dio eta NBEn Giza Eskubideen Kontseiluak legez kanpokotzat deklaratu

Boikot kanpainak lortu dute enpresa transnasionalek Israeldik alde egitea, esaterako, Orange, Veolia edo Airbnb

Zergatik Carrefour? Tropa israeldarrei janaria oparitzen ari zaielako, Bio produktuak jan ditzaten herritar zibil errugabeak hil ondoren

tutako kolonizazio proiektuaren konplize da. Urriaren 7tik, Israelgo langileei eskatu diete telelana egiteko. Horiei boikot gutxi egin diezaikegu, baina kontratuak esleitzen dizkietenei botorik ez emateko aukera dugu.

Botoa ematearena ere pentsatu beharrekoa da Madrilen, zalantzarik gabe seinalatu behar baita Madrigo Udala. Israeli eman zion Udalaren Oherko Domina urriaren 30ean, PPKo

José Luis Martínez-Almeida negargarriaren agindupean; baina 2017an estatuzko genozidak (garai hartan ere hala zen, maitiak) hiriko Urrezko Giltza jaso zuen eta orduko alkate Manuela Carmena eman zion. Isunak ordaintzeko moduan dago Madril.

## ETA ZER ERRO DU ISRAELGO JENDE GAIKOAK?

Ba "Alemaniako jende gaixoak" 1933 eta 1945 artean izan zuen berbera. Baina Internetekin, sare sozialetan eta genozidioa gelditzeko oihu eginez kalera irteerari den planeta oso batekin. "Kolono" israeldarrak dira inuzenteki Palestinako herritarren etxetara joaten diren pertsonak, handik alde egin behar dutela esaten dietenak, azalduz etxea euren dela, izaki mitologiko batek esan diela. Eta gero barre egiten dute, beren gobernuak bonbardatzen eta hiltzen duenean aurretik bertan bizi zen jendea.

Genozidioaren aurka dauden pertsona eta erakunde israeldarrak etengabeko presiopean bizi dira, euren gobernuaren eta armadaren aldetik, baina baita bizilagunen aldetik ere. Israelen sortutako kulturari boikota egitea da aurrean ispilu bat jartzea, erakusteko zer ondorio dituen pentsatzeak dauden zapalkuntza bakarrak, indarkeria bakarrak, direla zu zeharkatzen zaituztenak. Eta bizitako indarkeriek edozertarako eskubidea ematen dizutela. Eta zure bizitzak besteak baino gehiago balio duela.


## BAINA EZ DA ANTISEMITISMOA?

Ez, antisemitismoa da. BDZ ez du ezer herri juduaren aurka, ez du zalantzan jartzen bizi izan zuten genozidioa, eta ez du asmorik haiei egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea kentzeko. Kontrakoa baiziki.

BDZ proiektu supremazista eta genozidaren aurka dago. Proiektu hori defendatzen dutenek uste dute "herri hautatua" direla eta eskubidea dutela jada han zeudenak euren etxe eta lurretatik botatzeko, NBEn ebazpen guztien gainetik pasata, Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenaren eta, are, Genevako Konbentzioaren gainetik; hain zuzen, sortu zirenak Bigarren Mundu Gerran egindako basakerien ondoren.

Beraz, bai, sofatik egin dezakezu zerbait: boikota Israeli. Eta eskatzea Eurovisionetik berehala kanporatzeko Israel, ze izugarri maite dute odola purpurinaz estaltzea. ●

# Nakba, hondamen ukatua



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**P**alestina, 1948. Arabiar-israeldar gerraren eta Israelgo estatuaren sorreraren ondorioz, 750.000 palestinar sorterritik egotzi edo ihes egitera behartu zituzten. Palestinarren exodo horri Nakba esaten zaio. "Hondamena" esan nahi du arabieraz eta 750.000 errefuxiatu horiek baino askoz gehiago dago horren atzean. Israeldar armadak 500dik gora herri eta hiri palestinar suntsitu zituen, eta palestinarrei itzultzeko eskubidea ukatu zaie 75 urtez. Nur Masalha, Rashid Khalidi eta beste ikerlari batzuek "palestinar gizartearen desintegrazioa" deitu diote, eta Salman Abu Sitta, Ilan Pappé eta beste batzuek garbiketa etnikotzat dute.

750.000ko kopurua ere motz gertzen da. Orduz geroztik errefuxiatuen kopuruak etengabe egin du gora, tantaka batzuetan, modu masiboagoan beste batzuetan; esaterako, 1967ko Sei Eguneko Gerran. Horiek guztiak eta haien oinordekoak kontuan hartuta, 4 milioitik gora "errefuxiatu" eragin ditu Nakbak. Eta komatxoak erabili behar dira, 1948an egotzitako 750.000 horietatik soilik herenak lortu baitzuen errefuxiatu estatus ofiziala; gainerakoak "tokialdatuak" dira.

Mendebaldeak Nakba ukatu du hiru mende laurdenez. Israeldar erregimenaren izaera kolonialista eta okupatzailea ukatuta, "palestinar arazotzat" edo, kasurik onenean, bi alde berdinen arteko gatazka orekatutzat jo du palestinar herriaren ezabatzea eta horrek "eragin izugarria izan du Mendebaldeko gobernuen Palestina okupatuarekiko politikak taxutzen", Malcolm H. Kerr Carnegie Ekialde Ertaineko Zentroko kide Nur Arafeh-ren hitzetan.

Mendebaldeak 75 urte hauetan palestinar borroka despolitizatu du eta laguntza politiketan garbi islatu da hori. Arafehrek dioenez, "arazoaren sintomei begiratu diete, oinarritzko kausa, hau da,



Duela 75 urte 750.000 palestinar beren etxeetatik egotzi edo ihes egitera behartu zituzten. Nakba esaten diote horri eta nazioarteko komunitateak gertatutakoa ukatzen jarraitzen du.

israeldar erregimen okupatzailea, baztertuz. Sustrai politiko sakonak dituen arazoari azaleko adabaki ekonomikoak jarrita, Mendebaldeko gobernuak Israelen konplize bihurtu dira. Itxuraz palestinaren garapen ekonomiko sustatuta, haien onarpena eta etsipena bultzatu dute, eta Israelentzat uestezko gatazkaren kudeaketa errazagoa eta merkeagoa izateko eragin du".

## INFLEXIO PUNTUA?

Aurtengo maiatzaren 15ean 75 urte bete zituen Nakbak eta NBek lehenengoz ofizialki egin zuen oroitzapena. 2022an hartu zuen erabakia erakundeak, baina 30 herrialdek baino gehiagok, tartean AEBek, ezezkoa bozkatu zuten. Diplomazialari israeldarrak hainbat gobernuri presioa egiten aritu zi-

ren ekitaldia bertan behera utz zezaten. Azkenean, ekitaldia burutu zen, baina hainbat herrialdek ez zuten parte hartu, besteak beste, AEBek eta Erresuma Batuak. Keinu partziala eta hutsala izan zela are garbiago geratu da azken asteotan; "historia ukatzen jarraitzen dute", Frederick Deknatel DAWNeko (Democracy for the Arab World Now) kideak.

Gainera, Nakharen urteurrenarekin bateratsu, Israelgo estatuak ere 75 urte bere zituen, eta hor bai Europar Batasunak garbi utzi zuen bere jarrera; Europako Batzordeko presidente Ursula Von der Leyenek adierazi zuen Israelek duela 75 urte "basamortua literalki lorratzea" lortu zuela, ezerezetik sortu balitz bezala, Palestina existituko ez balitz bezala, eta Nakba gertatu izan ez balitz bezala. ●





Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala

# Euskaraz Zara, euskaraz gara.

Lezoko Udala  
euskararekin

# da!

## GERRATEA:

## JAKI GOSEA, JAKINTZA POBREZIA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**B**art eta berdantzart, bihar eta etzi, ez naiz nekatuko gauza bera esan eta esaten: gure kultura eta adimenduaren maila nekazaritzari zor dizkiogu. Nekazaritzak, lurra lantzeak onura ugari ekarri digu, gure egungo begiralekutik neurtuta izugarritzko hobari eta probetxua. Bat da nagusia: nahiko jaki eman digu. Duela sei bat mila urte arte euskaldunok mendian eta errekonduetan biltzen eta ehizatzen genuena jaten genuen. Hitz bakarrak adierazten zuen gure jaki-edari premia asetzen zuena: (h)ur. Hur eta ur, ahosketa bat eta bakarra jakia eta edaria esateko. Nahi adina hur den tokian ez da neguan goserik. Hur (*Corylus avellana*), sekula behar duen adinako gurtza emango ez diogun fruitua. Gero etorriko dira haritz eta arte jendearen (*Quercus spp.*) ezk-ur, mediterraneotik ekarri ziguten intxa-ur (*Juglans regia*) eta abar. Kultura atlantikoetan hurra izan da gure irautearen eta bizitzaren gakoa. Arren, ken dezagun haritza Gernikatik eta jar dezagun hurra!

Nekazaritzak nahikoa jaki eman digu; horrek alaba-semeek etorkizuna badu-

ten lasaitasuna, otorduero kalitatezko etengabeko elikadurak dakarren garunaren hazkuntza eta, saihetsetik, denbora. Landareekin lan egiten duenak denbora irabazten du, etengabe. Lurra prestatu, erein, zaindu, uzta bildu, zaindu eta abarrek denbora eskatzen dute eta nekazariari denbora ematen dio: landarearen bizimoduaren neurria makurtu behar da. Denboraren neurria beste bat da lurrarekin ari zarenean. Gaur egungo luxurrik handiena. Dudik gabe. Denbora hori da gure kultura guztien ama. Jaki onak eta denborak dakar jaki-ntza, kultura den guztia: hizkuntza eta gainontzeko guztia: elkarbizitza, filosofia, errespetua, musika, ulermena, arkitektura, literatura eta abar, pertsona bezala jan-tziko gaituzten gauza oro. Gure kulturak dena zor dio lurrrari eta lurra lantzen dutenei. Lurraren lan hori gabe ehiztari eta biltzaile soilak ginatke, denborarik eta kulturarik gabeak. Gu bezala gainontzeko kultura guztiak, guzti-guztiak.

Mediterraneo aldean, beste klima bat, beste lur batzuk, geurearengandik oso bestelakoak diren kulturak osatu eta garatu dira. Gure hurrak Mediterraneoan hiru dira: mahatsondoa (*Vitis vinifera*), garia (*Triticum aestivum*) eta laboreak eta olibondoa (*Olea europaea*). Mahatsondoak lan nekoso eta bitxia eskatzen

du. Laboreak sail handiak eta urtero errepikatzen den lan kate zail luzea. Olibondoa da errazena, eta bere mozkina urrea. Milaka urtean bizi daiteke eta nekazarien kulturaren katea landare guzti bezala irakasten du.

Guregana nekazaritza Mediterraneoan barrena etorri zen, Ekialde Hurbiletik. Hango kultura eta jakintza gurean ezarri eta kokatzean, beste jakintza batean garatu eta loratu zen. Loratzen ari gara. Lurrari bai baina haiei ere zor diegu garena. Lurra lantzen utzi ez eta bere izaeraren adierazle garrantzitsuenak ipurditik moztzen dizkieten haiei: palestinarrei. Direnak errotik moztzen ari zaizkie, eta mahatsondorik gabe, laborerik gabe eta, batez ere, milaka urtetako olibondorik gabe, kulturarik ez. Olibondo bat epaitu eta hiltzen dietenean beraiek bizi-hiltzen dituzte. Gosearen gerra da.

Zarena izateko kalitatezko jakiak eta denbora kentzea da etorkizuneko gerra. Denborarik gabe goseak iraunez gero beste ezertarako betarik ez, alaba-semeentzako jan bila tai gabe ibili behar eta ezin pertsona jantzia izan. Goseak pobrezia dakar, jan gabe ezin jan-tzi. Ezin izan.

Ezer jaten duzunero gogoan izan: jaten dugun guztia beraiei zor diegu. Mediterraneo nekazaritza ekarri zigun zubi bat izan zen, Lluís Llachek kantatzen duen "un pont de mar blava", itsaso urdinezko zubia. Zubi horrek hor jarraitzen du, eta hemendik harantz zer doa?

Ikasiko al dugu behintzat! Gosearen gerrak zabaltzen ari dira: lur sail amaiezinak erosten dituzte, haziak lapurtu eta patentatzen, ongari kimikoak eta pestizida hiltzaileak ekoizten eta horiek denek sortutako gaixotasunak tratatzeko botikak ere beraienak dira. Kate horretan bizi gara denok. Goseak pobretzen ari gaitu. Zabor janaria hedatzen, datorrena izango omen da historia osoan aurrekoa baino inteligentzia murriztagoa izango duen belaunaldia. Eta gure nekazariak zer etorkizun? Adore amaiezinarren ikono, gure nekazariak palestinarrek dira. Denok gara palestinarrek. Eta hanhemen gertatzen ari zaiguna ez da basakeria, zibilizaziokeria da. Kasu goseari. ●



1967tik ari da Israel palestinarren olibondoak sustraietatik ateratzen. 2009rako dagoeneko 830.000 olibondo ziren sustrairik gabe utzitakoak.



## PALESTINAKO HAZIEN LIBURUTEGIA

# AGROERRESISTENTZIA OKUPATUTAKO LURRALDEETATIK



GARAZI ZABALETA

**E**likadura burujabetza-  
ren aldeko mugimendua  
autodeterminazioaren  
aldeko borrokarekin zu-  
zenezan lotua egon da eta dago  
Palestinan. 1948an Israel kolonizazio prozesuarekin hasi zenetik, milaka izan dira haien lurretatik kanporatu dituzten nekazariak: mendez mende, belaunaldi belaunaldi, zaintzen eta lantzen zituzten lurretatik kanporatuak; oinarritzko elikadurarako aukera ematen zieten lurretatik kanporatuak. Egungo sarraski betean ere, ikusi ditugu soldadu israeldarrak olibondoak erretzen eta nekazariei haien lurretarako sarbidea mozten. Ez da kasualitatea. Lurrak lapurtzearekin batera, elikadurarako autonomia lapurtzen baitiete.

## EKOIZLE IZATETIK KONTSUMITZAILE ETA "MENPEKO" IZATERA

"Ramallah inguruan herri-  
tar guztiak nekazariak ziren  
1970eko hamarkadara arte.  
1975ean, lehen herritarrak lurrak utzi zituenean fabrika israeldar batean lan egiteko, traiziotzat hartu zen. Baina, pixkanaka, diru azkarra irabazteko aukera zenez, nekazari gehiago lurrak uzten eta fabriketara pasatzen hasi ziren", azaldu du Saad Dagher Ramallahko nekazariak *Equal Times*-eko erreportaje batean. Nekazari palestinar ohiak mugaz bestaldeko eskulan merke bihurtzearekin batera, Palestina Israelgo merkatuaren kontsumitzaile eta "menpeko" bihurtu zen pixkanaka. "Ekoizle izatetik kontsumitzaile izatera pasatzen gara, eta ba al dago modu hoberik norbait menderatzeko kontsumitzaile bihurtuz baino?",



Vivien Sansour haziak eskuan, Palestinako Hazi Liburutegian. Argazkia proiektu horren webgunekoa da: [WWW.VIVIENSANSOUR.COM/PALESTINE-HEIRLOOM](http://WWW.VIVIENSANSOUR.COM/PALESTINE-HEIRLOOM)

zioen erreportaje berean Vivien Sansour ekoizleak.

Palestinako Hazi Liburutegiaren bultzatzailea da Vivien Sansour. 2014an hasi zen "agroerresistentzia" bezala izendatzen duen proiektuaren oinarriak jartzen. "Gure haziak katalogatzea eta babestea erresistentzia forma bat da niretzat, eta bereziki garrantzitsua da okupazio israeldarraren pean bizi diren Zisjordaniako palestinarrentzat", zioen. Palestinako 47 hazi tradizional desagertzetik salbatu dituzte hazi liburutegiko kideek, eta Zisjordaniako Battir herriko gunean bildu dituzte guztiak. Hazi Liburutegia, gainera, hurbileko nekazarien topagune bihurtu da urteotan.

## GOSEAREN GERRA

Hona hemen 2022an, egungo sarraskia baino urtebete lehenago, Palestinako elikadura burujabetza inguruan argitaratutako zenbait datu: Israelek du Zisjordaniako uraren kontrola eta azpiegiturak eraisten ari da etengabe; Gazako nekazaritza lurren %35 iritsezinak dira, eta 13.000 dunam –dunam bat 1.000 m<sup>2</sup> dira– herbizidekin kaltetu dituzte; 1967tik, milioi bat olibondo baino gehiago kendu ditu Israelgo armadak, eta 2021ean, 1.600 zuhaitzen uztak hondatu edo lapurtu zituzten.

Azken asteotako sarraskiak milaka bizitza lapurtzearekin batera, autonomiaren aldeko bertako proiektuak ere kaltetzen ari da. Sarraskiaren beste ondorioak dira. Gazatik iristen zaizkigun bideoetan salatu dute: "Urik eta

elikagairik gabe gaude, Gazako herritarrok gosez eta egarriz hiltzen uzten ari dira". Vivien Sansourrek, mezu argia zabaldu du sare sozialetatik, urteotan haien proiektua bisitatu eta orain bizkarra eman dietenei: "Hazi Liburutegiko haziren bat eskuratu nahian zaudetenei. Gure haziak gu gara, eta honezkero ez gaude erabilgarri zuen arima atsekabetuak baretzeko. Eta, garrantzitsuena, noizbait egon izanaz ere damu gara. Ez gara komunitatea, eta ingurumenarekiko zuen maitasuna zuen gorrotoaren itxurakeria besterik ez da. Hainbeste maite baduzu lurra, bueltan eman bere jendeari". ●

# Macarena Arrieta Manterola

HARA BEGIRA



## EZJAKINAK ETA ARRAZISTAK

“Sei milioi pertsona errefuxiatu palestinar daude munduan barrena, eta gehienak, han daude: Zisjordania, Gaza, Jordania, Siria eta Libanon. 'Errefuxiatu' hitzaren aurretik 'pertsona' erabiltzen dut, sarri migratzaile edo errefuxiatu hitzaren inguruan etiketa moduko bat sortzen dugulako gure iruditerian, zenbaki bat bailitzan, eta pertsonak direla ahazten dugu. Zu eta ni bezalakoak, bizirautearen gupil zoroan bizi direnak. Alabaina, asko antolatuta daude, badute hitza, eta ez ditugu bigarren mailakotzat hartu behar. Eurozentrismoa oso kaltegarria da, ikuspuntu arrazista du eta ezjakin hutsak gara. Hori iraultzen ahalegintzen naiz ikastetxeetan, gizarte eraldaketarako hezkuntzan”.

## “Gazte askok Palestina mapan kokatu ere ez dute egiten”

Arrieta oriotarra duela hiru urte hasi zen lanean UNRWAn, Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslarietako Nazio Batuen Agentzian. 1948ko Nakbaren ondoren, 700.000 errefuxiatu laguntza emateko sortu zen erakundea. Euskal Herrian, Arrieta ikastetxeetan aritzen da belaunaldi berriei Palestinaren historia eta gaur egungo egoera azaleratzen, beti ere hemen bizi diren palestinarrekin batera. Elkarrizketa Israelgo eta Palestinako azken gertakariak baino lehenago egindakoa da.

AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ PELLO MAUDO HERRERO

### Nola azaldu nerabeei zer gertatzen ari den?

Testuingurua beti hartzen dut kontuan, eta kasu honetan, egungoaz gain, testuinguru historikoa ere ezinbestekoa da. Gazte askok Palestina mapan ez du kokatu ere egiten. Gaza, agian, eta justu-justu. Palestinar errefuxiatuekin jarduten dugu zuzenean, Euskal Herrian bizi direnekin, eta nirekin etortzen dira ikastetxeetara. Hori da, nire ustez, benetako historia ezagutzeko modurik erakargarriena, ahoz aho, bertakoekin.

### Badute kuriositatea euskal gazteek?

Baietz esango nuke, baina kontatzen ez bazaie, erakusten ez bazaie, ez dute jakinen. *Mass mediak* kontatzen duten apurra baino ez dakite eta hori ere askorik ez. Gu Zisjordaniar eta Gazaz aritzen gara bereziki. Zisjordanian, 2002. urtean eraikiriko 700 kilometroko harresia dagoela esaten diezunean, checkpointak,

etengabeko presentzia militarra, ibilbide laburra litzatekeena oztopo horiek guztiak gaindituz egin behar dutela ikustean, harritu egiten dira gazteak, noski.

Gazak bizi duen blokeoaren berri ere gutxi dute. Ezin atera eta ezin sartu bizi direla jakiten dutenean, zuzenean palestinar errefuxiatu baten ahotik, haien egunerokoa iruditatzea errazagoa zaie nerabeei.

### AHLAM bizitza batekin amestuz komikia tresna gisa atera duzue.

Bai, lan metodologia erakargarria erabiltzea, gaurkotua erabiltzea ezinbestekoa da. Komikia bada tresna eraginkorra. Mezuak sinpleak dira, zuzenak, eta irudien bidez osatua egoteak asko laguntzen du.

Azken hori osatu ahal izateko, Libanon errefuxiatuta dauden 20 emakume palestinar baino gehiagorekin hitz egiteko aukera izan genuen. Azkenean, lau dira liburuko protagonistak: Ahlam, Hiba, Wahida eta Rawaa. Askotariko adin, lanbide



eta kanpalekutako errealitatea azaleratu nahi izan dugu. Haien kontakizunetik abiatuta, hango eguneroko bizitza azaltzen du komikiak.

Rawaa, adibidez, gizarte zerbitzuetan jarduten duen emakume bat da. Wahida, Siriako gerratik ihes egin zuen emakume bat da. Sirian, jada, errefuxiatua zen, eta beraz, bigarren aldiz errefuxiatu behar izan zuen orain dela hamar urte. Hibaren bidez aldiz, neska gazteen bizitza agerrarazi nahi izan dugu. Kirola da bere pasioa eta emakume izate soilagatik gaititu behar dituen hamaika oztoporen berri ematen du liburua.

Azken batean, Libanon zein egoera humanitario duten kontatzen du. Beste bizitza baten ametsa edukita bizitzea zer den adierazi nahi izan dugu, beti ere, eurozentrismoa apurtu eta emakume horiek berdinetik berdinerara tratatu eta begiratuta.

### Eurozentrismoa edonon...

Bai, zoritxarrez. Kontrakoa uste badugu ere, Libanon esate baterako, eta beste leku gehienetan ere, emakumeak antolatuta daude. Ez dira biktimak. Badute hitza. Gure iruditerian emakume arabiarra zapaldua da, ez-jakina, isila, denak berdinak dira... eta ez. Hori da, hain zuzen ere, ikastetxeetan lantzen duguna. Hori bera apurtzea da erronka. Metodologiak erakargarria izan behar du, ordea, nerabeak "harrapatzeko". Horregatik jarduten dugu zuzeneko lekukotasun, bideo eta komikiekin, besteak beste. Ikusten dute emakume palestinarrek Instagram-



men aritzen direla, youtuber direla, eta aurreiritziak erabat apurtzen dira.

### Libanoko errefuxiatuekin lan egin izan duzu.

Lan bidaia bat egiteko aukera izan dut. Esan daiteke han daudela errefuxiatu izateko baldintzarik okerrean, eta han daudenak bizi direla egoerarik okerrean: langabezia tasa handia, inflazioa, immigrazio irregularra, ihes egin nahi eta ezin. Errefuxiatu estatusak ez du askorik bermatzen. Oso kanpaleku popula-

tuak dira, lur zati soil bat, plazarik gabe, parkerik gabe... hormigoizko etxebizitza altuak, gora hazi behar baitute bai ala bai, espazio faltagatik.

Emakumeekin jardun nuen nik, egunerokoari aurre egiteko sekulako estrategiak garatzen dituzte. Sukaldeak oso garrantzitsuak dira, adibidez. Bertan antolatzen dira, bertatik egiten dute gastronomia, jakintza eta kultura palestinarren transmisioa. Berebiziko garrantzia ematen diot horri, noski. Ordainpeko lana ere lortu izan dute, enpresa txikiak sortuz.

Hara joan ohi garenean, ikastera goaz, baliabide materialak eskaintzera, berarekin batera jarduteko. Ez goaz ezer irakastera. Badakite, eta gu baino askoz gehiago! Hemen ez dago gu eta haiek. Denok gara gu. Nazioarteko kideza ikuspuntutik jardutea oso garrantzitsua da. Parekotzat hartzen dugu elkar.

### Ezjakinak gara.

Oso ezjakinak gara eta dena nahasten dugu, musulmanak, arabiarrek, denak nahasten ditugu!

Titular soilekin eta pare bat irudirekin konformatzen gara, eta uste dugu jada badakigula, eta ez! Zenbat aldiz esan ote dut badagoela musulmana ez den arabiarrik, eta alderantziz! Testuingurua, hainbat iturritatik datorren informazioa eta jakintza gosea berreskuratu behar ditugu, munduan benetan gertatzen ari dena ulertzeko. ●



"Palestinar errefuxiatuekin jarduten dugu zuzenean, Euskal Herrian bizi direnekin, eta nirekin etortzen dira ikastetxeetara. Hori da, nire ustez, benetako historia ezagutzeko modurik erakargarriena, ahoz aho, bertakoekin".

## HEBA ABU NADA ETA HEBA ZAQOUT

# Azken lumak erresistentziari

Hilabete bakarrean, errukirik gabe, 10.000 pertsona baino gehiago hiltzeko gai den armada sionistari bost axola zaio bere misilek nor harrapatzen duten azpian. Urriaren 20ko bonbardaketek Heba Abu Nada poetaren bizitza akabatu zuten: 32 urte zituen, eta etorkizun oparoa ikusten zioten literatura arabiarrean. Astebete lehenago, urriaren 13an, Heba Zaqout marrazkilari eta ilustratzailea hil zuen Israelek.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA



**H**eba Abu Nadak salbu jarri zituen bere azken olerkietako batzuk urriaren 8an, Israelek “gerra” planteatu zuenean. Erregimen sionista, arrazista eta genozidaren sarraski-planak suntsitu ezingo lituzkeen lekura, sare sozialetako bere jarraitzaileen mugikorretara bidali zituen azken hitz literarioak: “Hiriko gaua iluna da misilen distira izan ezik, isila bonbardaketen soinua izan ezik, beldurgarria erreguaren lasaitasuna izan ezik, beltza martiriaren argia izan ezik. Gabon”. Egun

gutxi batzuk beranduago, Palestinaren interneterako sare osoa indargabetu zuen Israelek.

Poeta gazteak sekula ez zuen esango Israelek erasoaldia urriaren 8an hasi zuenik. Familia errefuxiatu palestinar baten alaba da Heba Abu Nada. Duela 32 urte jaio zen Saudi Arabiako Meka hirian, eta gazte-gaztetatik palestinarra sentitu dela esana zuen. Biokimikan lizentziatu zen Gazako Unibertsitate Islamiarrean, nutrizioari buruzko master bat egin zuen eta unibertsitateko irakasle jardun. Literatur zale amorratua eta idazle fina, literatur arabiarrean promesa gisa ikusten zuten. Besteak beste 2017an, 26 urte zituela, *Arabiako Sormena*-ri emandako *Sharjah* saria eskuratu zuen *al-Uksujin laysa lil-mawtā* (Oxigenoa ez da hilda-koentzat) eleberriagatik.

Urriaren 20ko gauean, Khan Yunis hiria errukirik gabe bonbardatu zuen armada sionistak. Ehunka palestinar hil ziren erasoaldietan; tartean, Heba Abu Nada.

## PALESTINAREN ASKATASUNA ETA FEMINISMOA

Heba Abu Nada poetaren antzera, Palestina nazioartean aitortzeko aldarrikatzen zuen Heba Zaqout artistak ere,

Heba Abu Nada



eta aktibista feminista esanguratsuak ziren biak.

Zaqout artista akriliko ezaguna izan da Palestinan. 1984an jaio zen Gazan, Al-Aqsa Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean graduatu zen, eskola publikoan irakasle zebilen, eta artearen kontuetan, Palestinaz harago, nazioarteko hainbat erakusketatan hartu izan zuen parte. Nazio-identitateak, bakeak eta emakumearen subiranotasunak bere koadroen zentralitatea hartu izan dute sarri. ●



Heba Zaqout



## Palestinari buruz, hiru ikus-entzunezko euskaraz

### Etz Limon

("Limoiondoak")

Eran Riklis

2008 / 106 min.



Emakume palestinar alargun batek bizilagun berria du: Israelgo Defentsa Ministroa. Kargudun horren emazteak ere rol esanguratsua du pelikulan, injustizien pisua beregain sentitzen duelako sarri. Gazako harresia eraikitze prozesuan ari dira, eta belardiko limoiondoek garrantzia berezia dute.




### To Shoot an Elephant

("Elefantea tirokatu")

Alberto Arce eta  
Mohammad Rujailah

2009 / 114 min.



Israelgo gobernuak inor Gazara sartzea debekatu zuen 2008ko abenduan. Hala ere, nazioarteko begirale talde batek inguru horretan sartzea lortu zuen. 2008ko abenduaren 25etik 2009ko urtarrilaren 16ra bitartean ikusi zutenaren zati bat jasotzen du filmak.



### The Agenda Setting Palestina hedabideetan

Helena Bengoetxea

2015 / 86 min.



Helena Bengoetxea iruindarrak Bakea eta Duintasuna eta Biladi elkarteentzako eginiko dokumentala. Palestinaren inguruan informazioa zabaltzeko moduez hausnartzen du, eta kazetari palestinarrek lan egiteko dituzten arazoak azaltzen ditu.



# LATA-BALOIA

*ArabLit Quarterly* aldizkarian ingelesez (itzultzaile anonimoa) argitaratu zen ipuina, 2023ko urriaren 15ean. Euskarara ekarri du Gorka Bereziartuak.

 ADANIA SHIBLI

**G**erra, antza denez, bukatua zen, indarkeriaren muturrik latzenetara iritsi ondoren. Labur esateko, puntu gorenera iritsi zen, eta han ari ziren soldaduak beren gauzak gordetzen eta beren ekipoa jasotzen, nekatuta, leher eginda eta hustuta, beraien energia guztia batailan eman ondoren. Dena beren poltsetan eta ibilgailuetan sartzen ari ziren beraz, kontu handirik gabe. Baziren tropak garraiatzeko ibilgailuak, beste batzuk ekipoa militarrek eramateko erabiltzen ziren, bala-kaxentzako eta granadentzako, tankeak garraiatzeko, eta janari-laten-tzako, batzuk iraungipen-data pasata. Begiak ikusi zezakeeneraino behintzat, horiek ziren kalterik gabe biziraun zuten gauza bakarrak. Inguru guztiko erai-kinak, aldiz, bonbardatuak izan ziren eta orain zulo desordenatuz beterik zeuden, haien koskorrak kaleetan eta espaloietan eroriak, eta pinturak, fatxadetatik eta barruko hormetatik askatuta, oraindik altzariak inguratzen zituen, bonbardaketatik ihes egin zutenek ezin izan baitzituzten aldean eraman. Ez ziren hain erraz ikusten leku hartan barreiatu-tako adin guztietako gorpuak. Edo, zehatzago agian, ikusezin mantendu behar zuten. Aldiz, haien kopurura mugatu behar zen arretoa eta, behar bezainbeste denbora izanez gero, posible izango zen haien izenak eta adinak aipatzea, gero haien heriotzen inguruabarrak, tartean esplikatzuz zertan ari ziren hil zituzten instantean, eta zer ezingo zuten inoiz

gehiago egin. Baina hori lan neketsua izango zen. Izan ere, ia ezinezkoa izango zen informazio hura guztia biltzea zeina, itxura guztien arabera, aukerarik txikiena edukitzean ahaztuko zen ziur aski, eragin zezakeen sinpatia eta, are, tristezia handia gorabehera. Hemen ez da horrelako ezer egingo dena den, eta hartara deuseztatuko da testu hau propaganda politiko gisa irakurria izateko aukera, horrek zenbait irakurleren hase-rra eragingo bailuke, partikularki klase ertain intelektualekoen artean. Edozein modutan, gorpu horiek, norbaitentzat esanahiren bat izatekotan, haien jabe zirenez gain, noski, izango zen haiengandik hurbil zeuden horientzat, agian baita haien hiltzaileentzat ere. Ez orain, baina bai geroago. Segur aski hemendik urte askora, zeren orain hiltzaile horiek nekatuta daude, leher eginda, akituta, eta oraindik geratzen zaien energia erabiltzen ari dira beraien gauzak eta ekipoa jasotzen, guda-zelai hau abandonatu eta euren etxeetara itzultzeko atzerapenik gabe. Beraz, kalterik jasan ez duen edo erabilia izan ez den guztia bildu behar dute, eta beraien ekipoko poltsetan edo dagokion ibilgailuan jarri. Eta biziraun ez duen guztia edo erabilia izan dena, zabor-poltsa erraldoietan jaso behar dute, eta horretan ari direnean ez dute jartzen beraien gauzak eta ekipoa jasotzean bezalako arretarik. Hala ere, azkenik lekutuko direnean, zerbait utziko dute atzean, eta ez bakarrik zabor-poltsak. Bitartean, urrunean entzungo dira aho-

tsak aldarrikatuz azkenean maitasuna eta bakea izango direla garaile, eta ekipoa medikuak hara sartzeko prestatuko dira, atzetik nazioarteko prentsa dutela, laguntza humanitarioaren konboiak eta giza-eskubideen aldeko erakundeak, eta haien atzetik arrapaladan, ume talde bihurri eta zoko-miatzaile bat. Sartu bezain pronto, talde bakoitzak bilatuko du leku horretan bere interesekoa izan daitekeen edozer. Ez zaio denbora gehiegi eskaini behar interes horiei, aski ezagunak baitira. Hortaz, testuak zuzenean jarriko du arretoa zoko-miran eta bihurrikeriatan ari den ume taldean, zeina oraingoan osatzen duten Mohammadek, Mounirak, Moneimek, Mazenek, Mayoonek, Mukhlesek eta Mayak, zeintzuen izen guztiak, kointzidentzia hutsez, M letraz hasten baitira. Horretaz aparte, eta aurrekari ekonomiko eta sozial ugaritako familietan jaio ziren arren, funtsezko beste zerbait dute amankomunean: pobrezia. Mounira zen zaharrena, baina Mohammad zen indartsuena, eta biak ziren taldeko aitzindari ia abandonatutako guda-zelaia zeharkatzen zutelarik, Maya, gazteena eta txikiena, beti atzealdean zutela.

Adin eta tamaina bakoitzak dauzka bere abantailak eta desabantailak, baina Mayak une hartan alde txarrak bakarrik bizi zituen. Taldeko beste kideek soldaduen zaborretan gauza zoragarri, bitxi eta baliotsuak arakatzeko zituzten bitartean, berak aurkitzen zituen gauzak, sardina-lata hutsak eta bala-azalak



adibidez, edonolakoak ziren eta ez zitzaizkion inori inporta. Biltzen jarraitu zuen hala ere, horietako bat boteaz hobeto zegoen beste bat aurkitzen zuen aldiro, distiratsuenak eta mailatuegi ez zeudenak gordez, azkenean aurkitu zuen arte sardina-lata bat estalkia pixka bat bakarrik altxata zeukana, erabat hutsik zegoen arren. Eta Maya berehala hasi zen hura betetzen bildu eta gorde zituen bala-azal txikiekin. Astiro eta kontu handiz, banaka-banaka ahokatu zituen, lata bala-azalez bete zen arte, zabalarentz pilatuta, sardinak normalean ipintzen diren erarekiko angelu zuzenean. Gero, bat-batean, sorpresazko eta miresmenezko oihiak entzun ziren aurreko taldetik, eta korrika hasi ziren, eta Mayak atzetik segi zien, ideiarik ez zeukan arren zergatik, baina egoera hartan bera ere, besteak bezala, instintuak gidatzen zuen beti elkarren ondoan egoera ahal bezainbeste.

Denek egin zuten korri eraikinik eta jenderik gabeko gunee bateraino, non jolastu ohi zuten bake-garaietan. Mounira eseri egin zen eta Mohammedek gauza bera egin zuen, beste guztiak inguruan bildu ziren bitartean. Isiltasuna nagusi zela, Mounirak bere alkandoraren azpitik disko formako metalezko lata atera zuen. Zerbait zeukan idatzia, haietako inork deszifratu ezin zuena, baina azpiko irudiarengatik bazekiten zehazki zer zen. Kolore berde itzaliko pepinoen irudi bat. Mounira borrokan hasi zen lata irekitzeko eta bitartean Mohammedek hori egiteko argibideak eman zizkion, baina berehala sartu zen tartean, lata haren eskuetatik erauziz. Horrek ez zuen esan nahi Mounirak lataren kontrola galdu zuenik. Inola ere ez. Bitartean, lerdea pilatzen hasia zen estututako ahoetan, presan gordetako masa hura atzera irensten zuten arnasa hartzeko goregi iristen zenean. Egiazki, beraiek ez zuten uste ume izugarri pobreak zirenik, baina latakoko pepinotxoak gauza bitxia ziren beraien erosketako saskian edo, are, beraien eguneroko bizitzako paisaian. Batzuetan ezkonberrien hozkailuetan ikusten zituzten, edo bazkari edo afariren batean. Baina horrela aurkitzea, jolasten ari ziren bitartean, hori pentsaezina zen. Kontua orain zera zen, ea zenbat pepinotxo zeuden latan, eta zenbat hartuko zituen ba-



FREEPIK / @AMITKUMARSIMANTO38

koitzak. Gutxienez zazpi egongo ziren. Agian hamar. Eta denentzat onargarria izango zen Mounirak eta Mohammedek, lata aurkitu zutenek, gehienak eta handienak beraientzat hartzea, behin gairontzeko guztiak denen artean berdindan banatu ondoren, eta pepinotxo txikiena Mayarentzat izatea. Haren gorputzak, txikiena eta gazteena izaki, ez zituen benetan hainbeste behar. Pentsamendu, burutazio eta irudikapen horiek bete zituzten buru txikiok, lata, azkenik, ireki zen arte. Hasieran tintin-hots bat, irekitzean egin zuen soinua metal urratuaren kraska bihurtu zen, eta ozpin-zukua- ren urrina denen sudurzuloetara iritsi zen, geroz eta usaintsuago bilakatuz lata Mohammad eta Mouniraren artean pasatzen zen bitartean. Prozesu hura ez zen hainbeste lata elkarri pasatzea, gogoz kontra harengandik bereiztea baizik, azkenean Mohammeden eskuetan bermatu zen arte, Mounirak haren edukia ateratzen segi zuen bitartean. Pepinotxoak banaka esleitu zitzaizkien aurrena Maysooni, gero Mazeni, gero Mukhlesi, gero Moneimi eta, azkenik, Mayari. Eta egia esateko, ikuskapen eta azterketa askoren ondoren, ez zirudien diferentzia handirik zegoenik tamainan. Mohammedek eta Mounirak latari eta

haren barruan gera zitekeen zernahiri eutsita jarraitu zuten, eta denak hasi ziren beren partearen irensten. Eta gehienek beren pepinotxoak bukatu zituzten ahalik eta mantsoen jaten saiatu arren, baina Mohammedek eta Mounirak ez. Beraz, erreguzko murmurioak entzuten hasi ziren, batari edo besteari koska bat eskatzen, txiki bat bakarrik, eta Mohammad eta Mounira errieta egiten erreguka ari zirenei, baina hala ere, mokadutxo ñimiñoak ematen, taldeak latakoko pepinotxo guztiak bukatu zituen arte, zukua bakarrik utziz. Beraz, hura edaten hasi ziren, bakoitza zegokion txandan, eta inork ez zuen edaten besteek baino gehiago, eta baten batek halakorik eginez gero, Moneimen kasuan bezala, orduan Mounirak lata kenduko zion. Merezita!, esan genuen.

Gero, Maya alde batera utzita, hiru laguneko bi taldetan bereizi ziren eta lata ostikatzen hasi ziren alde batetik bestera. Eta lata urrunegi botatzen zuten aldiro, Maya, bazter batean baitzegoen, gazteegi eta txikiegi futbolearen jokatzen den jakiteko, korrika joango zen haren bila.

Benetan egun ederra izan zen, haietako inork inoiz erraz ahaztuko ez zuena. Zoriontsu ziren. ●

# Sanders, hoa siestara edo

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**G**auzak nola saltzen dizkiguten politika posibilistaren merkatuan: duela hiru urte super-super inportantea zen Usamerikako hauteskundeetan demokratak fatxari irabaztea; eta jakin zenean Joseph Robinette Biden Jr. presidente izango zela –portzierto, txorrotako ur fresko pixka bat edateko go-go jartzen zait enperadorearen izen osoa idazten dudana aldiro; espainulek ez duzie konprenitzen ahal, baina beste batean esplikatu dut txistea, digresio hau autodeterminazio eskubidea eskatzen hasiko baitzait laster-, zera, nioen moduan beraz, Bidenek Trump zamalkatu zuela jakin berri, eskura dauzka-gun medio gehienetako urretxindor kantariak esnatu gintuzten “librada ederra egin diagu” esanez.

Orain ikusten duzu Biden –Washington-New Yorkak faxismotik libratu behar zituen huraxe bera-, nola ari den Netanyahu bizkarrean txapaka, eta pentsatzen duzu: honezkero Trumpi ez zaio tarte handirik geratzen, oso fuerte saiatu arren, naziagoa izateko. Eta palestinarren eraiketa masiboari txeke zuria eman dion presidentea hurrengo AEBetako hauteskundeak irabazteko lehian sartzen denean, hala ere, hor hasiko zaizkizu demokrazia liberalaren urretxindorrak berriz, “Biden gure laguna da, anaia bezala”, eta abar tartar.

Kontua hor bukatuko balitz, tira. Baina politika posibilistak merkatu-nitxo guztiei begira lan egiten du, eta Trump ikusi nahi ez izateaz gain Bidenengan fede handirik ez daukan bezeroarentzat ere badauzka beste pakete batzuk, gaur eskatuz gero 24 orduetan etxean jaso ditzakezunak bidalketa-gasturik gabe. Pentsa, Che Guevararen rolloko klientelarentzat ere badute produktu bat: Bernie Sanders du izena eta diseinatuta



dago jendeak pentsa dezan nahikoa dela haren aldeko botoak ereitea noizbait AEBak jardun botaniko sozialista bihurtzeko.

Produktu bitxia da, hori bai, eraldaketa sozialaren hautagaitza sustatzeko etengabe dirua eskatzen baitizu –“*I am once again asking for your financial support*” da, segur aski, haren esaldirik ezagunena-, eta parean tokatzen zaion lehen genozidioan, su-etena zalantzarik gabe eskatu orde, Alfonso Guerraren antzeko norbait bihurtzen da –to bromuroa libido politikoarentzat-, sarraskiak ia hilabete martxan zeramanean honelako gauzak esanez: “Ez dakit nola lor daitekeen su-etetik Hamas bezalako erakunde batekin”. Jasotako kritiken ondoren, Israelek Gazan hildako lagun kopurua gutxi gorabehera 10.000 inguruan zegoenean, “paua humanitarioak” beharko lirakekeela esaten hasi zen –horrek esan nahi du: bonbardaketak ordu batzuetan eten, medikuei lan egiten utzi, palestinarrei janaria, arropak eta abar eman, eta gero berriz haiek bonbardatzen hasi-. Eta alderdi demokratak beste zenbait ordezkari su-etenen

alde posizionatzen hasi direnean ere, besoak gurutzatuta jarraitu du Bernie “gorriak”.

Jeremy Corbynen mamuak izutu ote zuen pentsatu nuen hasieran: Erresuma Batuko alderdi laboristaren buru izatera iritsi zen politikari ezkertiarra frijitu egin zuten, palestinarren eskubideen alde zeukan jarrera antisemitismo akusaziopean kakaztuta. “Sandersek ez du erreka hori jo nahi eta horregatik dabil epelkerian”. Beti bezala, oso hipotesi onbera nerabilen esku artean, Vermonteko (AEB) *The Rake* hedabideak kontuak argitu dizkidan arte: unibertsitatea bukatu zuenean kibbutz batera joan zela Sanders boluntario, 1970eko hamarkadatik Richard Sugarman sionista deklaratu duela lagun –eta batez ere, aholkulari-, industria militarra zenbat aldiz babestu duen... zerrenda luzea da. Eta aspergarria. Historial horrekin, argi baitago AEBetako senatari “erradikalenak” ezer gutxi egingo duela palestinarren bizitzak salbatzeko. Politika posibilistaren merkatuak eskaintzen digun beste edozein aukerak bezain gutxi, alegia. ●



**Abendutik aurrera**

bi astelehenean behin  
ARGIA eta audio  
plataforma guztietan

Oraingoan bertsoa  
albora utzita...  
beno, ez erabat :)

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)





Ilustrazioa: Higinia Garay

Gure hizkuntzaren alde egiten dugu, ez gure *ondarea* babesteko bakarrik, baizik eta baita gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko* ere.

Euskara sustatzen dugu gure komunitatea sustatzeko.



LABORAL  
kutxa

Bada beste modu bat